

Goienkaria

2010eko martxoaren 31 > Eguaztena > X. urtea > 416. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10
Kommunikazio Zerbitzua URTE

www.goiena.net

TOKIKOM

"Bakea eta normalizazio politikoa askoz ere gertuago daude orain"

Maite Aristegi
Independentistak sareko kidea > 08



G2a

Asier Altunarekin haren azken lanaz jardun dugu > 21

JENDARTEA

Apirilaren 14an epaituko dute Aramaio alkate Asier Agirre > 04

ARRASATE

Apirilaren 6an hasiko dira Ferreriasko plazako lanak > 10

ANTZUOLA

Bidegorria ekainerako erabilgarri egotea espero dute > 17

EUSKARA > IZEN-ABIZENAK

Abizenak euskal grafiara alda ditzagun kanpaina hasi dute

ESKUBIDEA UEMAREN kanpaina da; gogorazi nahi dute izen-abizenak ofizialki euskaraz idazteko eskubidea dagoela

JAIOTZE-AGIRIA Aldaketa norberaren jaiotze-agirian egiten da, eta hori islatzen da gero NAN eta beste dokumentuetan

TRAMITEA Aldaketa edozeinek egin dezake -adin txikikoek ere bai- eta epaitegira jotzea da lehenengo pausoa > 02-03

JENDARTEA > AISIALDIA

Agorrosingo tarifak ezbaian

Aldundiak eskatu dio Bergarako Udalari tarifaren igoera birplantatzeko > 04

12 eta 14 urte artekoendako diskoteka antolatuko dute Bergaran

Bergarako Udalak antolatuko du, eta zapatuan egin zuten lehenengoa. Hain justu ere, izandako arrakasta ikusita erabaki dute maiztasun finko-arekin antolatzea. Urritik aurrera hamabostean behin egingo dute, 18:00etatik 21:00etara. Udalak eta gazte-txoek osatzen duten Gazteria Kontseiluan mamitu da ekimena. Izan ere, gazteek eskatuta antolatu zuten alkoholik gabeko dantzaldia zapatuan Zabalotegi aretoan, eta herriko 160 gaztetxo elkartu ziren euren gustuko musika entzun eta dantza egiteko. > 09



JAIALDIA Zabalotegik diskoteka itxura hartu zuten zapatuan eta DJek jarritako musikarekin gustura egin zuten dantza gazteek.

JULIO CALLEJA

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 06
Elkarrizketa > 08
Herriak > 10-19
Kirola > 20
Kultura > 22
Gazteak > 25
Sailkatuak > 26-27
Telebista-Irratia > 28
Zerbitzuak > 28
Berri-zakua > 29
Eskelak > 29
Non-zer > 30-31



Pazko aste osterarte!

Oporrak hartuko ditugu apirilaren 6ra arte. Hala, Aste-leheneko Goienkaria-ren hurrengo zenbakia apirilaren 12an argitaratuko dugu eta GOIENKARIArena, 16an. Ondo ibili oporretan!

JENDARTEA > AISIALDIA

Bisitariak hartzeko gertu

Turismo bulegoek guztia prest dute Aste Santuan etorriko diren bisitariari eskaintza zabala egiteko > 04



Iritsi dira martxoko opariak!
Badago zuretzako?

Zoaz 3. orrialdera

EUSKARA > IZEN-ABIZENAK

Abizena euskal grafiaz jartzeko aukera gogora ekartzen du kanpaina batek

ASPALDITIK Abizena -eta izena, nahi bada- ofizialki euskal grafia aldatzeko eskubidea aspalditik dago, baina jende askok ez daki hori; bada, kanpaina hasi du UEMAK

ERREGISTRO ZIBILERA Lehenengo pausoa da Bake Epaitegira edo Bergarako epaitegira joatea eta eskaera-orria betetzea; NA, errolda-agiria eta jaiotza-agiria behar dira



Maite Aristegi bergararrak abizenaren grafia euskaraz ipini du. Argazkian, Bergarako udaletxea

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Norbere euskal abizenak euskarazko grafiarekin idazteko kanpaina abiarazi du UEMAK, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak; eta, kanpaina ikusita, hainbat herritar animatu dira euren lehenengo abizenaren edo lehenengo bien idazkera aldatzea modu ofizialean. Oraingo kanpaina erakunde jakin batek egin duen arren, deituen grafia euskarara aldatzeko aukera beti dago, eta herritar guztiak dute, ez bakarrik bailaran UEMAKo kide diren herrietakoek (Bergara, Antzuola, Aramaio eta Elgeta). Are gehiago, ez da modu horretako lehenengo kanpaina; beste batzuk ere egin izan dira, eta bada abizenen grafia euskarara aspaldi aldatu zuen jende asko; horrelako kanpainak balio dute, baina, gogorarazteko aukera hori dagoela.

JAIOTZA-AGIRIA ALDATZEN DA

Berez, jaiotza-agirian aldaketa agintzean datza, besterik ez. Bergarako Erregistro Zibileko arduradun Igor Pikabeak azaltzen du prozedura: "Aldaketa egiteko, espediente bat egin behar da. Espedientea eskatzailea bizi den tokiko epaitegian hasi behar da, tokian tokiko epaitegian; Bergararen kasuan, Bergarako Erregistro Zibilean, eta adibidez, Elgetako kasuan, Elgetako Bake Epaitegian. Espedientea hasteko, eskatzaileak honako dokumentazio hau eraman behar du epaitegira: Nortasun Agiriaren fotokopia; errolda-agiria; hitzez hitzeko jaiotza agiria; eta ezkondua badago edo seme-alabarik badu, familia-liburua".

Euskaltzaindiaren irizpidea jarraitzen da, baina ez da zurruna: adibidez, bati 'Mujika' onartu zioten, 'Muxika' barik

Adingabeek ere egin dezakete, baina lehenengo gurasoek aldatzen badute, adingabeko seme-alabei aldatzen zaie

Debagoienarren kasuan, "eskaera hori jaso eta Bergarako Erregistro Zibilera igortzen da, beroni dagokio-eta hori ebaztea, partidu judizialeko buru izanik. Epailearen ebazpen batekin onartu edo ezeztan da eskaera eta, onartzen den kasuetan, erregru bat bidaltzen da eskatzailea jaiotzen den tokiko epaitegira, aldaketa hori egin dezaten aginduz. Jaiotza agirian aldaketaren alboko anotazio bat egiten da". Pikabeak azaltzen duen moduan, jaiotza-

LABUR

> ZEIN DA LEHENENGO PAUSOA? Norbere herriko Bake Epaitegira edo, bergararren kasuan, Erregistro Zibilera (epaitegian) joan eta eskaera-orria bete.

> ZE DOKUMENTU BEHAR DITUT? Nortasun Agiria edo horren fotokopia; errolda-agiria (udaltxean eskatzen da); hitzez hitzeko jaiotza-agiria (Bergaran, epaitegian; norbere herriko udaletxean; edo www.justizia.net webgunean); eta ezkondua badago edo seme-alabak baditu, familia-liburua.

> ZEIN DA PROZESUA? Bergarako Erregistro Zibilari egiten zaio aldaketa eskaera (Bergaratik kanpo egiten bada, hango Bake Epaitegiak egiten du eskaera). Epaileak erabakitzen du eskaera hori onartu edo ez. Onartzen bada, agindu bat bidaltzen diote eskatzailea jaiotzen den tokiko epaitegira, aldaketa egin dezaten aginduz. jaiotza-agirian idazten da aldaketa egin

dela. Ezkontza-agirira eta seme-alaben jaiotze-agirira zabaltzen da aldaketa; seme-alaben kasuan, bakarrik adingabekoak badira.

> NORBERA JOAN BEHAR DA ERAKUNDEETARA? Epaitegiak berez bidaltzen du aldaketaren berri honako lekuetara: dagokion Udalera, Zigortuen eta Auzi-iheslarien Erregistro Zentralera, Hautesle-errolaren Lurralde Ordezkaritzara eta Espainiako Poliziara eta Guardia Zibilera. Gainerako erakundeetara norbera joan behar da.

> ADIN TXIKIKOEK ERE EGIN DEZAKETE ALDAKETA? Bai, aipatutako dokumentuei gurasoen dokumentazioa eta errolda-agiria gehituta.

> INTERNETEN Argibide gehiago, www.uema.org webgunean. Euskaltzaindiaren grafia irizpideak, hemen: www.euskaltzaindia.net/eoda.

tza-agiria sorburu duten beste dokumentu batzuetan berez egiten dira aldaketak: "Bere izena edo abizena agertzen den erregistroko beste aktetara zabaltzen da agindua: ezkontza-agiria, seme-alaben jaiotza agiria. Eskatzaileak adingabeko seme-alabarik balu, abizen aldaketa horri ere automatikoki egiten zaio; seme-alaba adinez nagusia bada, berorrek eska dezake aldaketa hori berari ere egin diezaioten".

Adingabekoen kasuan, lehen esandako dokumentazioaz gain, gurasoen dokumentazioa eta errolda-agiria aurkeztuko dira, gurasoak baitira aldaketa eskatzen dutenak.

DOKUMENTU BATZUK, BEREZ

Jaiotza-agirian aldaketa egin eta gero, epaitegiak ofizio edo agindu bat bidaltzen du norberaren Udalera, Zigortuen eta Auzi-iheslarien Erregistro Zentralera, Hautesle-errolaren Lurralde Ordezkaritzara eta Espainiako Poliziara eta Guardia Zibilera. Gainerako lekuetara norbera joan behar da, eta horretarako, jaiotza-agiriaren kopia bat emango diote, aldaketaren egiaztagiri gisa.

Igor Pikabeak dioen moduan, "jaiotza-agiriaren aldaketa da; Nortasun Agiria, familia-liburua... agiri horren isla dira. Horrela, bada, Nortasun Agiria berritu behar duenean, hitzez hitzeko jaiotza-agiria bat eraman beharko du, eta NA berria datu berriekin egingo diote".

Gure izenean dauden hainbat dokumentu ofizial daude, epeka berritzen direnak: adibidez, pasaporte. "Indarrean dauden doku-



Kanpaina asko egin dira; goian, Getxon eta Anoetan egindakoen irudiak.





n, errodako agiria eskatu zuen lekuan, kanpainako orria erakusten.

LEIRE KORTABARRIA

mentuekin, batzuek momentuan berritzen dituzte, eta beste batzuek iraungi arte, kadukatu arte itxaroten dute eta orduan egiten dute aldaketa", esaten du Igor Pikabeak. Modu batera edo bestera, epe horren barruan ez da arazorik egoten dokumentua lehengo grafia-arekin egonda ere, ez eta tramitazioa egiten dabilen epean ere.

EPAILEAREN ERABAKIA DA Bergarako Erregistro Zibileko arduradunak azaltzen duen moduan, abizenaren grafia -eta, nahi izanez gero, izenarena ere bai- aldatzeko aukera ez da beritasuna: "Franco hil eta gero, Erregistro Zibileko arauak nabarmen aldatu ziren, eta Espainiako Estatuko hizkuntza ofizial guztietan jar-

daitezke izen-abizenak. Adibidez, 1976an jaiotako neskatok bati *Ane* edo *Miren* jar ziezaiokeen; horren aurretik, *Ana* edo *Maria* gisa inskribatuta egongo zen. Arauen aldaketak izen horiek euskaraz jartzeko aukera ematen du; gauza bera abizenen kasuan".

Irizpidea epailearena da: "Epaileak erabakitzen du eskerra onartu edo ez. Epaile gehienek Euskaltzaindiaren irizpidearen arabera ematen dituzte ebazpenok". Kasu batzuetan, zalantzak egon daitezke: adibidez, *Muxika* da Euskaltzaindiak onartutako idazkera, eta ez *Mujika*. "Hala ere, eskatzaileak errekurtsioa jartzeko eskubidea dauka", esaten du Pikabeak. Aditu horren iritziz, "kasu horretan, ez dago irizpide objektiborik; hala, Bergarako bizilagun bati onartu egin zaio *Mujika*, errekurtsioa ipini ondoren".

Euskararen ikuspuntutik, adituek ez dute zalantarik. Honela dio Bergarako Udaleko Euskara zerbitzuburu Estepan Plazaolak: "Zergatik idazten ditugu euskal abizenak erdal ortografiaz? Hizkuntza bakoitzak bere alfabetoa, bere ortografia du, eta hizkuntza guztiek beren alfabeto eta ortografia erabiltzen dute bertako herrien, pertsonen eta abarren izenak idazterakoan. Orain dela urte gutxira arte euskara ez da ofiziala izan eta euskal jatorriko izenak frantsesezko eta espainolezko grafia moldatuta eman izan dira. Udalek herrien izenak euskal grafiaz jartzeko pausoa eman zuten moduan, gutariko bakoitzak eman behar du abizenak zuzentzeko pausoa. Momentu honetan, gauza oso erraztuta dago eta pauso hori eman behar dugu".

Maite Aristegi > Bergararra

"Lehendik neukan abizenaren grafia aldatzeko asmoa; azkenean, egin dut"

L.K. > BERGARA

Maite Aristegik 24 urte dauzka, eta UEMAREN oraingo kanpaina ikusi ondoren erabaki zuen abizenaren grafia aldatzeko pausoa ematea. Tramite guztiak egin ditu eta epaitzeko jakinarazpenaren zain dago.

Zelan hartu zenuen abizenaren grafia aldatzeko erabakia?

GOIENKARIAren bidez jaso nuen oraingo kanpainaren berri. Lehendik ere banuen pauso hau emateko asmoa, eta kanpainaren berri jasotzerakoan animatu nintzen.

Ze bide jarraitu zenuen?

Begarako udaletxera jo nuen, errolda-agiria eskatu nuen, eta epaitegian beste orri batzuk bete behar izan nituen. Nortasun Agiriaren fotokopia ere eraman nuen.

Jaso duzu erantzunik?

Oraindik ez; zain nago. Epaitegian esan zidaten lan handiarekin

zebiltzala eta denboratxo bat hartuko zuela; bizpahiru hilabete-edo, esan zidatenez. Behin eginda dagoela esaten didatenean, Nortasun Agiria berrizera joango naiz.

Zeintzuk izan dira egin dituzun aldaketak?

Aristegui neukan eta *Aristegi* ra aldatu dut; bigarren abizenaren aldaketarik ez nuen behar. *Aristegi* idazteko aukera ere bazegoen, baina hori ez dut aldatu nahi izan.

Bestelako informazio osagarririk behar izan zenuen?

Guk abizena, zuk? delako kanpainaren eskuorria hartu nuen eta hor jaso nuen behar nuen informazioa.

Ezagutzen duzu abizenaren idazkera aldatu duen beste inor?

Bai; amak eta ahizpak eginda zeukaten lehendik.

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

MARTXOKO
IRABAZLEAK

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



DANBAKAKO
HIRU DISKA

DANBAKAKO
hiru diska

DANBAKA))))

IRABAZLEA

Karmele
Korta
Mendiguren
Arrasate

UMEENTZAKO
LIBURUAK

Ikastolen Elkarteko
umeentzako liburuak.



IRABAZLEA

Ines
Elortza
Iriarte
Bergara

SASKIBALOIRAKO
SARRERAK

Lagun Aroren
partidurako sarrerak.



IRABAZLEA

Roman
Balanzategi
Landa
Arrasate

GOIENAKO
PENDRIVE-A

Goienako
pendrive bat.



IRABAZLEA

Josune
Lopez de
Bergara
Arrasate

Amaia
Ugarte Bolibar
Aramaio

SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN
ZOKKETATU DEN JOCCA RACLETTE BAT



JENDARTEA > TURISMOA

Dena gertu dute Aste Santuko turistek ongietorria egiteko

Ibarreko turismo bulegoek eta museoek ordutegi eta bisita bereziak izango dituzte bihartik aurrera

Oñati-Arantzazu autobusak etengabeko zerbitzua emango du 07:30etik 20:00etara, 60 zentimoan

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Aste Santuko oporrak aprobetxatuz Debagoienara helduko diren turisten eskaerak asetzeko gertu daude ibarreko turismo bulegoak eta museoak.

BSITA GIDATU GEHIAGO

Oñatiko Turismo Bulegokoek unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko bisita gidatuak egingo dituzte bihartik astelehenera arte 12:00etan eta 13:15ean; bihar, zapatuan eta domekan 17:00etan; eta egubakoitzean, 16:15ean. Gainera, Arantzazuko Interpretazio Zentroan santutegia eta Oteitzaren lana gertutik ezagutzeko bisitak egingo dituzte. Interesatuak 943 79 64 63 telefonora dei dezakete. Bestalde, Bergarako bulegoak erdigune historikoa erakusteko bisitak egingo ditu. Ordua hartzeko 943 77 91 28 telefonora dei daiteke, edo turismoa@bergara.net helbidera idatz daiteke.

Era berean, Eskoriatzako Ibarraundi museoa (943 71 54 53) eta Gatzagako gatz museoa (665 73 95 49) zabalik egongo dira. Azkenik,



Turistak gatz museoan, iaz.

GOIENKARIA

TURISMO BULEGOEN ORDUTEGIA

> BERGARA

- Zabalik: martxoaren 17tik apirilaren 18ra.
- Ordutegia: astegunak: 10:30-14:00 eta 16:00-19:00. Domekak eta jaiegunak: 10:00-13:30.

> ESKORIATZA

- Zabalik: apirilaren 1etik 11ra.
- Ordutegia: goizez: 09:00-14:00. Arratsaldez: 17:00-19:00.
- Apirilaren 3an, 10ean eta 11n itxita.

> LEINTZ GATZAGA

- Ordutegia: apirilaren 1etik 5era eta aste bukaerak: 10:00-14:00 eta 17:00-21:00. Gainerako egunak: 10:00-13:00 eta 16:30-20:00.

> OÑATI

- Ordutegia: apirilak 1 eta 2: 10:00-14:00 eta 16:00-19:00. Apirilak 3 eta 4: 10:00-14:00 eta 16:30-18:30. Apirilak 5: 10:00-14:00. Apirilaren 6etik 11ra ohiko ordutegian zabalduko dute.

Arrikruz kobetan (943 08 20 02) bisitak egingo dituzte egunero 10:00etatik 14:00etara, eta 15:00etatik 19:00etara. Astelehenera itxita egongo dira.

ARANTZAZUKO AUTOBUSA

Bestalde, Oñati-Arantzazu autobusak etengabeko zerbitzua eskainiko du bihartik aurrera, 07:30etik 20:00etara. Oñatitik lehen autobusa 07:30ean irtengo da, eta azkena 19:30ean. Arantzazutik lehen zerbitzua 08:00etan egingo du, eta azkena 20:00etan.

> IKERKETA

Hitzarmena sinatu du Ikerlan Ik4-k Belgikako IMEC zentroarekin

Ikerlan IK4-k hitzarmena sinatu du Belgikako IMEC ikerketa zentroarekin. IMEC nanoteknologiaren eta nanoelektrikaren ikerketen duen Europako zentro handiena da. Guztira, 1.600 langile dituzte. Ikerlan IK4-k beste aurrerapauso bat eman du hitzarmen horrekin.

Bi enpresek sinatu duten hitzarmenean lankidetzarako oinarriak zehaztu dituzte; besteak beste, egunerokotasunean oihartzuna duten teknologietan aurrerapausoak emateko aukera ematen die. Gainera, ikertzaileak elkartrukatu dituzte bi enpresek, eta doktorego-tesiak bultzatzeko ahalegina egingo dute.

> OHARRA

Maiatzaren 26tik ez dute Nortasun Agiririk egingo Eibarren

Maiatzaren 26tik aurrera ez dituzte Nortasun Agiriak egingo edo berrituko Eibar bulegoan. Gobernuak Gipuzkoan duen Ordezkariordeztzak kaleratu duen oharrean diote ez dutela zerbitzu gehiagorik emango Eibarren "muga teknikoak" dituztelako. Horren harira diote Nortasun Agiri elektronikoa egiteko "makina handiak" behar dituztela: "Eta Eibarko egoitzan ez dugu tokirik".

Hortaz, data horretatik aurrera Nortasun Agiria berritu edo lehen aldiz egin behar dutenek Donostiako, Irungo edo Bilboko (902 24 73 64) edo Gasteizko (945 20 95 47) bulegoetan hartu behar dute txanda. Bulego horietan hamar minutuan egiten dituzte Nortasun Agiri elektronikoa.

ZERBITZUAK > AUZIA

Agorrosingo tarifen igoera birplanteatzea eskatu dio Aldundiak Bergarako Udalari

Elgetako eta Antzuolako erabiltzaileek %50 gehiago ordaintzen dute martxo hasieratik

M.B. > BERGARA

Foru Aldundiko Kirol Departamentuak gutuna bidali dio Bergarako Udalari Agorrosingo tarifen igoera birplanteatzeko eskatuz. Aldundiko iturriek baieztatu dutenez, gutunean "gogora ekartzeko" diete udal arduradunei zein baldintzatan eman zieten Agorrosin egiteko 2.100.000 euroak; alegia, "eragin esparruko herrieta-

ko erabiltzaile guztiei trataera bera ematea". Orain, Bergarako Udalaren erantzunaren zain daude eta Aldundiko iturriek gehitu dute erabakia aldatu ezean, "neurriren bat" hartuko dutela.

Begarako Udaleko iturriek aurreratu dutenez, Pazko Aste-an batzarra egingo dute Antzuolako eta Elgetako ordezkariarekin "gaiari irtenbidea topatzeko".

MARTXOTIK, %50 GARESTIAGO

Martxoaren lehen hasi ziren antzuolarrak eta elgetarrak %50 gehiago ordaintzen Agorrosin Ekintza Guneko instalazioak erabiltzearen. Igoeraren arrazoiak eman zituen orduan Martin Etxeberria Bergarako Kirol zinegotziak: "Agorrosin finantzatzen da bergararren abonarekin, eta defizita Udalak ordaintzen du. Hortaz, zati bat Antzuolak eta Elgetak ordaindu behar dute. Baina udal horiek ez dute baldintza onartu; hortaz, hango erabiltzaileak beste herrietakoak bezala tratatu ditugu". Eta hau gaineratu zigun: "Begararrak kanpokoak baino gehiago ordaintzen dabilta kiroldegiko txartelagatik. Baina ez da horregatik bakarrik: lehen igerilekuak bakarrik geneuzkan, eta orain zerbitzu gehiago ditugu".

AHT > EPAIKETA

Apirilaren 14an epaituko dute Aramaioko alkatea

Estatuko Fiskalak salaketa ipini zuen AHTren gaineko galdeketa egiteagatik

Agirrerri epaiketaz zer espero duen galdetuta, zera esan digu: "Ez dakit; epaiketa nola doan ikusi beharko dugu".

SALAKETA

2008ko apirilean Estatuko Fiskaltzaren Aramaioko alkatearen kontrako salaketa ipini zuen AHTren gaineko galdeketa egitearen. Fiskaltzaren hitzetan, alkateak debekuari "muzin egin" eta "galdeketa egitea erabaki" zuen; eta "prebarikazioa, aginte judizialari desobediencia eta ondasun publikoak bidegabe erabiltzea" egotzi zizkion.

M.B. > ARAMAIO

Aramaioko alkate Asier Agirre apirilaren 14an epaituko dute Gasteizko Lurralde Auzitegian, 09:30ean. Fiskaltzaren arabera, epaitu egingo dute 2007ko irailaren 28an, 29an eta 30ean AHTren gaineko "legez kanpoko" galdeketa egiteagatik.

Maria Isolina Davobe > Zuzenbidean aditua

"Zahartzaroa gaixotasuna dela uste dute askok oraindik; pentsaera aldatu behar da"

JOKIN BEREZIARTUA > OÑATI

Rosarioko (Argentina) unibertsitateko zuzenbide irakaslea den Maria Isolina Davobek 15 urte daramatza zahartzaroan espezializatutako zuzenbidearen gainean ikerketa lanetan. Asteon Lege Soziologiako Nazioarteko erakundean, Oñatin, hartu du parte, gero eta zaharagoa den gizarte honek planteatzen dituen galderak erantzun guran.

Labur-labur esanda, nola definituko zenuke bi egunotan eztabaidagai izan duzuen?

Mintegia antolatu genuen honako gai hauen arteko harremana hainbat ikuspegi ezberdinetatik jorratzeko: zahartzaroa, bizi-kalitatea eta giza eskubideak. Aldaketa handiak ematen ari diren garaietan bizi gara, bizi-itxaropena gero eta altuagoa da eta horrek galdera eta zalantza berriak planteatzen ditu; esate baterako, erretiratu ostean bizi jarduera positiboki nola enfokatu, edo zahartzaroaren gainean dauden aurreiritziak nola ezabatu. Izan ere, egungo gizarteak errealitate berri hori onartu beharra dauka.

Zeintzuk dira mintegitik ateratu dituzuen ondorio nagusiak?

Ezin da ahaztu mintegian mundu zabaleko espezialistak izan direla eta horrek mosaiko interesgarri bat erakutsi digu: bestek beste, Kolonbia, Mexiko, Brasil, Argentina, Espainia eta Euskal Herriko adituek euren errealitateak azaleratu dituzte. Eta errealitate horiek abiapuntu ezberdinak eman dizkigute; esaterako, biolentzia eta tratu txarrak, zaharra izateagatik diskriminazioa, osasunari lotutako arazoak—zaharren egoitzetan sartzeko ematen



Maria Isolina Davobe, atzo, mintegian.

KRISTINA RUIZ

"Bizi-itxaropena gero eta altuagoa da eta horrek galdera berriak planteatzen ditu"

"Pertsona edadetuen eskubideak neurri ekonomikoetatik haratago joan behar dira"

diren arazoei garrantzi berezia eman diegu—. Izan ere, oraindik zahartzaroa gaixotasun moduan hartzen dute askok, eta pentsaera hori aldatu beharra dago.

Lege aldetik zeintzuk dira hutsune nagusiak?

Nazioartean eta kultura ezberdinetan, oro har, pertsona edadetuekin nola jokatu behar den iradokitzen duten agiriak daude, baina egun ez dago bitartekorik iradokizun horiek errealitate egiteko.

Gainera, egungo egoera gainditu behar dugu; hau da, pertsona edadetuen eskubideak neurri ekonomikoetatik haratago joan behar dira. Urrats kualitatibo hori ematen lehena Europa izan da. Logikoa da, zahartzen dabilen herrialdea delako. Are gehiago, zahartuta dagoen herrialdea dela esango nuke.

POLITIKA > ABERRI EGUNA 2010

Aldarrikapen bateraturik ez alderdi abertzaleen artean

Deialdiak daude Urruñarako, Bilborako eta Irun-Hendaia arteko ibilbidea egiteko

J.B. > BERGARA

Astebukaeran honetan ospatuko da Aherri Eguna eta hiru hitzordu nagusi daude: Aralarrek eta Abertzaleen Batasunak apirilaren 3rako deitutakoa eta Independentistak plataformak eta Euzko Alderdi Jeltzaleak apirilaren 4rako deitu dituztenak.

APIRILAREN 3AN

Aralar eta Abertzaleen Batasunak deituta, Urruñan (Lapurdi)

ospatuko dute apirilaren 3an, 17:30etan abiatuta. Egitarau zabal izango da: ekitaldi politikoa, bertsolariak, musikariak...

APIRILAREN 4AN

Orain gutxi eratu den Independentistak sareak—EAK bat egin du haiekin— Hendaia eta Irun artean egingo duten ibilaldiaren ospatuko dute apirilaren 4an. 11:30ean manifestazioak abiatuko dira Hendaiaiko Gazteluzar frontoitik

eta Iruneko Txanaleta plazatik. Herri bazkaria eta bestelako ikuskizunak ere egongo dira.

EAJ alderdiak ere apirilaren 4an ospatuko du Urkulluk Bilboko Plaza Berrian egingo duen agerraldiarekin.

HITZORDUAK

> **BILBO** EAJko buru Iñigo Urkulluk apirilaren 4an agerraldia egingo du Plaza Berrian, 11:30ean.

> **URRUÑA** Aralar eta ABk Urruñan (Lapurdi) ospatuko dute apirilaren 3an, 17:30etan hasita.

> **IRUN-HENDAIA** Independentistak sareak Irun eta Hendaia arteko ibilbidearekin (11:30) ospatuko dute, besteak beste, apirilaren 4an. EAK bat egin du deialdiarekin.

etxeko leihotik



Goiatz Arana > 'goarana@goiena.com'

8 urte egitera noa ni gustuko proiektu baten

Duela hamar urte, gaurko egunez, Debagoieneko euskara elkarteek bat egin zuten Goiena sortzeko. GOIENKARIAren aurreko zenbakian ikusi genuen bidea zabaldu zutenen talde argazkia, martxoaren 31 hartan egindako batzarraren amaieran ateratakoa. Oinarriak jarrita zeuden ordurako, egia da: lehenengo euskarazko toki aldizkaria Arrasaten sortu zen —Arrasate Press— eta telebista ere bazegoen martxan.

Nik ere, goierritarra izan arren, banuen Arrasate Telebistaren berri, eta, euskarazko toki telebisten artean, erreferentzia zen niretzat; nahiz eta nengoen tokitik ez ikusi, jakin banekien Arrasate Telebista errealitate bat zela, aldi berean martxan zeuden beste proiektu batzuen existentzia oharkabean pasa zitzaidan bitartean. Gogoan dut lizentziatura bukatu berri, hemengoaren moduko euskarazko toki telebista bat amesten nuela nire zonarako eta ni haren parte izatea ere bai, noski. Urte batzuk geroago, jaino zen hori ere eta izan nuen hara joateko aukera, baina, jada, nire sentipenak ez ziren lehenengoak: Goienan nengoen ordurako eta betetzen ninduen proiektu baten parte nintzen: telebistan lanean, euskaraz eta lantalde ezin hobe batean. Ez zen Goierrri Telebistara joateko gogo falta izan hemen geratzeko nire erabakia berretsi zuena, atzean utziko nuenak ematen zidan pena baizik!

"Goierritarra izan arren, banuen Arrasate Telebistaren berri"

> **AED** bazkide berri bila dabil. *Aldien Eruen Deigun* kanpainaren bitartez, arrasatearrak animatu gura dituzte euskara toki guztietara eramanez, babestu eta sendotzera. Norbanakoen apurrekin, Arrasate euskalduntzea posible izango delako!

> **Abizena euskaraz jartzeko kanpaina da abian den beste bat.** Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak jarri du martxan: *Guk abizena, zuk?* Hortxe aukera, beraz, euskal abizenak modu ofizialean eta toki guztietan euskaraz izan nahi dituztenentzat.

emakumeon ahotsak

Arrasateko Ahotsak taldearen txokoa

Batzen gaituenetik...

Arrasateko Ahotsak taldean azken bi urte hauetan elkarrekin eta hitz egin dugu. Batzuetan, momentuko egoera aztertu dugu; beste batzuetan, arazoa duten beste herrietan emakumeek izan duten paperaren inguruan hitz egin dugu. Eta berriketaldi hauetan batzen gaituzten ideiak zerrendatu egin ditugu:

- Pertsona guztien eskubideen errespetutik abiatuta, aurreiritzirik eta baldintzarik gabeko elkarrizketa abiapuntu ona dela baieztatzeak.
- Askatasunean, justizia sozialean eta demokrazian oinarritutako bakearen aldeko konpromisoak.
- Bakea erdiestea eskakizun kolektiboa eta lehentasun politikoa izateak.
- Edozein motatako bortxaketarik ez egoteak.
- Emakumeok bakearen aldeko eragile eta subjektu aktibo izan behar dugula sinesteak.
- Itxaropenezko orain eta etorkizun baten alde lan egiteak.



zabalik

Ixotz Louyest

Patologiza zioa

DSM-IV-a da gaixotasun psikiatrikoen diagnositarako eskuliburu berriena. Psikologia klinikokoan eta psikiatrian, adituek liburu hau darabilte bezeroen miaketak burutzeko, buruko zein gaixo edo desoreka duten zehazteko.

Transexualitatea topa dezakeuz bertan, lehen homosexualitatea bezala, gaixotzat jotzen baituen. Aldi hartan adituek, maiz, electroshock, lobotomia eta beste hainbat tratamendu bortitz erabiltzen zituzten, gay izatea saihesteko, bezeroek osatzeko beharrik ez bazuten ere; guztiok dakigu zientzia ororen gain erlijio batzuek izan duten eragina.

Azken hamarkadetan, berriz, gizarteak bilakaera positiboa lortu du duintasun arloan, oraindik behar beste ez den arren. Transexuala naiz; kultura eta hezkuntzaren eraginez, informazioz ezaren ondorioz, lagun hurkoen errefusa sumatu nuen eta tamalez nire izaeraren zutabe sendo bat ukatu nuen, ni neu izatea gaitz itzela baitzen! Egoera honek psikologoena lana garrantzitsua dela oroitarazten dit, autoestimua lantzeko lez arazoak ebazten laguntzeko.

Ez nator bat nazioarteko osasun erakundearekin disforiko, trastornatu eta abar gisa jotzen gaituenean. Diagnosi horiek ez dira bidezkoak. Gainera, biztanleriaren gehiengoak ez bezala, osasun mental sasoitsua dugula bermatzera behartzen gaituen protokolo zorrotz batean oinarrituz, adituek epaileak balira bezala jokatzeko dute, transexualon desoreka zertan datzan ez dakitela onartu beharrean; izan ere, sexu identitatea ez dago kromosomen baitan soilik, garuneko beste hainbat funtsek berebiziko eragina dute nortasuna osatzerakoan eta hauek ikergai dira.

Ongi izatea, duintasuna ez dira gaixotasunak!

"Gizarteak bilakaera positiboa lortu du duintasun arloan, oraindik behar beste ez den arren"

usteak uste

Larraitx Zeberio

Lehena Etxegaraten, antza

Diote Aldundiak Etxegaraten ipiniko duela lehenengo bidesari berria. Gaiak hautsak harrotu ditu. Garraiolariak kexu dira, Nafarroako Gobernuak dio neurria ilegal dela eta kamioi gidariak ez garenok susmoa dugu denbora kontua besterik ez dela bidesaria, azkenean, denoi aplikatzea. Helburua omen da kamioien zirkulazioa N-1etik AP-1era bideratzea, eta esan dute dirua errepideen mantenurako behar dutela. Horrelako erabakiak ondo argumentatu behar direla uste dut. Numeroak falta zaizkit niri; alde guztienak.

Ultzerarik ez mesedez!

Aitor Zubizarreta
Aretxabaleta

Ia bada urtebete Aretxabaletako Izurietako auzoko gaintxotik inaugurazio ponpoxo bat ikusi ahal izan genuela, karpa eta guzti! XXI. Mendean gaudela adierazten duen zubi moderno horrek ematen duen kategoriarik giroturik! Han izan ziren herri honetako agintari eta dena delakoak, oraindik ez dakit zer jan edo edan zuten, ez dakit urdaila betetzeko betarik izan zuten ere, ez ginelako bertan izan, lehen esan dudana bezala Izurietako gaintxotik ikusi genuelako.

Hori bai, beraientzako ez zuten bihotz errerik gorde, hori guretzako utzi zuten, beste kaltetu batzuen artean Izurietako bizilaguntzat, ez gara-eta digestio txarra jasan behar izan duten bakarrak izan eta haiek ere hartu dezatela gutun hau beraiena balitz bezala. Esan dudana ezezaguna egiten zaionarentzako AP-1 autopistaren inaugurazio eta ondorioez ari naiz.

Lanek iraun zuten bitartean jasan genuena gutxi ez eta autopista bukatu ondoren beraiek utzitako txapuzek eragiten digute bihotz erre hori, Izurietako bideari begiratu besterik ez dago, Gasteizera ziztu bizian ia igarri ere egin gabe joan gaitzkeen honetan (hori bai, majo pagaute!) kaletik etxera eta etxetik kalera joateko mendiko pista bat dirudien ehun bat metroko zatia pasa behar izaten dugu!

Hasieran, inaugurazioko karpak erretiratu orduko konponduko zutela uste izan genuen, baina usteak erdia ustela! Maiatzean beteko da urtebete AP-1 martxan jarri zutenetik eta horrek bere horretan jarraitzen du! Horrelako gauza txikietan (norberarentzako handi) islatzen da agintarien konpetentzia maila eta kasu honetan garbi geratu da zenbateraino-

gutunak

koa den, horra hor zubiarekin batera iritsi ez den berrikuntza. Eskoriatzan zerbaitetan hasi direla entzun dugu. Ea noiz iristen zaigun gure bikarbonato dosia.

10 kilo baino askoz gehiago

Amaia Agirre
Arrasate

Nahiko zenukeena baino gutxiagotan izaten duzu aukera eta gogoz irten zara etxetik maila eroso-erosoak jantzita. Kilometro latzak dituzu aurretik. Betiko kurba hartan badakizu badaezpadan polikiago sartu behar zarela, eta helmugara heldu orduko estutuko zaizula arnasa.

Ez, gaur ez zoaz Almeriara. Badakizu datozen bost hilabetetan ezingo duzuela elkar besarkatu. Bioi jarri dizueten azken zigorra da. Eta gaur Urkulura joateko jantzi dituzu zapatilak. Zazpi kilometroak korrika egingo dituzu autora heldutakoan bera zain izango duzula imajinatuz.

Hasi zara takarraran. Igual udarako mitxelinak jaitsiko dituzula pentsatzen ari zinenan etorri zaizu burura honez gero Zuhaitzek 10 kilotik gora galdu dituela. Aste honetan jakin duzu frantziar kartzeletan ere gogor jarri direla borrokan. Fleurykoek 20 egunetik gora omen daramatzate gose greba mugagabeen. Berriz ere kartzeletan bizi baldintza duinak errespetatzen dakizkien eskatzen dute. Eta berriz ere exijitzen dute, senideok bakean utz zaitzate.

Izerdia bularretan behera. Hotzikara sartu zaizu azken aldian bisita barik geratu zinen aldi hartaz gogoratuta. Biluztu arazi nahi izan zintuzten eta inpotentziatik berretsi zenuen berriro, sekula ez zeniola kartzelarik urrunenean jarrita ere, bera ikustera joateari utziko.

Pausoa bezain azkar darabilzu orain burua: "Zergatik kondenatzen gaituzte astero errepideetan gure biziak arriskuan jartzera? Zergatik sufritu behar ditugu senideok halako umilazioak? Zergatik agoantatu behar dugu espetxeetan geure senideei oinarritzko eskubideak ez errespetatzea?".

Buelta osoa osatzear zaudela, pausoa moteldu eta pasean dabilen jendeari begira zoaz. Haiengan ikusi nahi izan duzu mendekuzko erokeria honi freno jartzeko babesa, indarra, esperantza. Presoak epaitegietan jarritako kondenak betetzen ari dira. Ez beraiek, ezta beraien senideok ere ez daukagu zertan jasan gure eskubideen urraketa bakar bat ere!

Eta jendeak astakeria honen aurrean erantzun behar duenaz, erantzungo duenaz konbentzitu abiaturaz autoan Atxabaltarantz. Keparen bost hilabeteko bis a bisak, Zuhaitzen gose grebako hamar kiloak bi adibide gordin direlako; 700 euskal preso politikotik gora eta beraien senide guztiak suntsitzeko estrategia errepresiboa muturreraino estutu dutelako honez gero. Hemen nahi ditugu, hemen behar ditugu beraien eskubide guztien jabe.

IRAKURLEAREN GUTUNAK

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com



Telefonoa:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 13

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETAKO Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Saietako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak eta Goienka2a), Xabi Urzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Oxel Arrieta, Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zieritza Martin, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAKO 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**



Oihane Isasi, Goiena Telebista errealizatzailea, Azkaraten zubisalto egin ondoren.

Egin dugu salto

Orain digitalera salto egin dugu:

> **BERGARAN ETA OÑATIN**

Goiena Telebista dagoeneko digitalean:
BERGARAN, OÑATIN, ARETXABALETAN, ESKORIATZAN,
ARRASATEN ETA LEINTZ GATZAGAN.

Laster digitalean:
ANTZUOLAN, ARAMAION ETA ELGETAN.

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!

Baikor da Maite Aristegi. Inoiz baino baikorrago, ezker abertzale legez kanporatuak egin duen azkeneko hausnarketa-ren ondorioak direla-eta. Independentzia aldarrikatzeko, bide baketsu eta demokratikoen alde dihardu, sarea osatuz, independentziaren onuren alde, jarrera pedagogikoa azalduz. Aberri Egunerako dei egin du, abertzale guztiak batzeko.

Maite Aristegi > Independentistak sareko kidea

"Bakea eta normalizazio politikoa askoz ere gertuago daude orain"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Otsailaren 23an aurkeztu zuten Donostian jendearen aurrean Independentistak sarea eta sorrerako agiria, *Ari gara* izenekoa. Maite Aristegi bergararra da sare horretako bozeramaileetako bat.

Zer da Independentistak?

Ekimen berri bat da, pertsonaz osatua. Kideok independentistatzat dugu geure burua eta burujabetzaren alde egiten dugu. Herri hau subiranoa eta bere buruaren jabe izan dadila nahi dugu. Agertoki horretara ailegatzeko lanean jardun nahi dugu.

Zeintzuk zaudete horren atzean?

Joan den udazkenean egin genuen Nazio Eztatanda Gunearen azkeneko bilkura, eta hango impresioak jasota eta herri honen nahia zein den ikusita, jauzia egiteko beharra sumatu genuen. Beste herri batzuetan ere burujabetzaren aldeko nahiak gauzaten zihoazela ikusita, erabaki zen une egokia zela. Iritzi honen aldeko jendearekin eta abertzale sentimendua duten alderdiekin batu ginen... Edozelan ere, hau ez da alderdien bilgune bat. Alderdien jokoetatik eta hauteskundeetako lehiatik kanpo dago. Bide demokratiko hutsak erabili nahi ditugu: giza eskubideen aldarrikapen unibertsala eta eskubide zibil eta politikoen nazioarteko ituna aintzat hartzen ditugu.

Diozue herriaren borondatea gauzatu nahi duzuela...

Bai. Ez gaude ETAREN borondateagatik. Hori garbi utzi nahi dugu. Baina, era berean, ez dugu nahi ETA aitzakia izan dadila indarrak batzen ez joateko. Independentzia herri honendako one-na dela uste dugu. Esparru egokia da gure naziotasuna eta hizkuntza babesteko, hemengo jendartea hobeto bizi izateko.

Sarea dela diozue eta Interneten, sare sozialetan-eta, asko zabaldu da. Zenbat atxikimendu lortu du ekimenak orain arte?

Egungo egoerara egokitu nahi dugu: teknologia berriak erabili, Interneteko sare sozialez baliatu... Dagoeneko 6.000 atxikimendutik gora jaso ditugu sarean. Independentziaren eszenatokira ailegatzeko, indarrak batu eta lanean jardutea da asmoa, alderdietatik kanpo.



Maite Aristegi, *Goiena magazinea*-n.

ENEKO AZKARATE

Baina ze alderditako jendea dago Independentistak sarean?

Nork bere burua ordezkatzu, ezker abertzaleko jendea dago, EAKoa, Aralarkoa, ABkoak ere gurekin harremanetan daude... Atxikimenduen artean, EAJ eta Hamaikabateko jendea ere bada. Beharbada, agerraldi publikoan, EAKoak eta ezker abertzalekoak ageri ziren gehienbat, baina esparru zabalagoko jendea ere bada. Zeharo espazio irekia da hau. Orain arte, gatazka politikoa konpontzeko egin diren beste saiakeretan, herri mugimendu sendo bat faltan sumatu dugu.

Aintzane Ezenarrok GOIENKARIAN kritikatu zituen Independentistak taldea sortzeko modua eta *Ari gara* agiria. Hain justu ere, taldea sortu eta agiria adostu ostean, aurkeztu zaiola Aralarri, atxikitze eskatuz...

ALDERDIETATIK APARTE
"Alderdien jokoetatik eta hauteskundeetako lehiatik kanpo dago Independentistak sarea"

ETA
"Ez dugu nahi ETA aitzakia izan dadila indarrak batzen ez joateko"

BIDE POLITIKOAK
"Bide demokratikoen bitartez herri hau aurrera ateratzen saiatu behar dugu"

Gauzak ez dira egin Ezenarrok dioen moduan. Baina argitu dugu kontu hori Aralarrekin. Beste kontu bat da Aralarrek, une honetan, estrategikoki egoki ikustea horrelako mugimendu baten beharra.

ETA ez da oztopo independentziaren aldeko mugimendu zabal eta plurala osatzeko?

Izan daiteke, baina horri begira bagaude inoiz ez dugu aurrera egingo. Lan egin behar dugu ETA oztopo izan ez dadin. Gainera, ikusten dugu beste testuinguru batean gaudela eta bide politikoa, zibilak... nagusitzen ari direla. Bide demokratiko hutsetatik egingo dugu lan. Olatu berria aprobetxatu eta harresia sortu nahi dugu etorriko diren egoera berriak eraginkorrak izan daitezen.

EAJk eta Hamaikabat-ek zelan hartu dute Independentistak sarea?

Gehienbat, ezikusiarrena egin dute, baina alderdi horietako pertsonak badaude Independentistak sarean eta hori da guretako garrantzitsua orain.

Aberri Eguna da zuen lehen ekimena, ezta?

Bai, bizi dugun testuinguru honetan, uste dugu merezi duela Aberri Egun indartsu, jendetsu eta bateratua antolatzea. 11:30ean, jende multzo bat Hendaiatik eta beste bat Irundik abiatuko da eta Ficoban elkartuko gara. Estatu bien arteko mugan. Nazio bat, herri bat garela aldarrikatu nahi dugu. Ekitaldiaren ostean, bazkaria egingo dugu 1.000 bat lagunendako.

Aberri Egun bateratua ez da izango, hala ere.

EA eta ezker abertzalea egongo dira; ABk ordezkartza bat bidaliko du; Aralarreko jendea ere egongo dela uste dugu; EAJkoa ere bai... Siglen gaintik, pertsona abertzaleak batu nahi ditugu Aberri Egunean.

Zelan ikusten duzu ezker abertzaleak egin duen hausnarketa prozesua eta ateratako ondorioak?

Oso ekarpen garrantzitsua egin du eta argi lagatzen du panorama. Batzeko eta oztopoak gainditzeko aurrerapauso handia da. Abertzale guztiak batzeko beste urrats bat da. Bakea eta normalizazio politikoa askoz ere gertuago daude orain. Nahiz eta Frantziako eta Espainiako estatuek oztopo guztiak jarri. Bide politiko eta demokratikoen bitartez herri hau aurrera ateratzen saiatu behar dugu. Inoiz baino baikorrago naiz.

Ze iritzi daukazu Brian Currin eta halako adituek nazioartean egiten diharduten lanaz euskal gatazkaren konponbidean laguntzeko?

Egia handiak esaten dihardute. Ea denok gauza garen haiei entzun eta aintzat hartzeko ditena.

Ezker abertzale legez kanporatua hurrengo hauteskundeetan egongo da?

Espero dut baietz, nahiz eta Espainiako Estatuak eskubide zibil eta politikoen aurka jardun.

goiena.net/bideoak
Elkarriketa osoa, webgunean.

Herriak

Arrasate > 10-11 Bergara > 12-13 Oñati > 14 Aretxabaleta > 15 Eskoriatza > 16 Antzuola > 17 Aramaio > 18 Elgeta > 19 Gatzaga > 19



> **ARRASATE**
Datorren astean hasiko dira Erdiko kalea eta Ferrerias lotzeko lanak > 10



> **ARETXABALETA**
Urkuluko bidegorriaren 3. zatiko lanak deitu ditu Udalak > 15



> **ESKORIATZA**
Kirola, hitzaldiak, irteera, liburuak eta abar, kultura eskaintzan > 16



> **ELGETA**
Aurreikuspen guztiak gainditu ditu 'Herrixa dantzan'-ek > 19

BERGARA > GAZTETXOAK

Gaztetxoendako diskoteka gutxienez hilabetean behin egingo dute

DISKOTEKA

Gaztetxoek eskatutako moduan antolatu du jaia Bergarako Udalak, eta arrakasta izan du

MUSIKA

20 laguneko ilarak egin zituzten euren gustuko musika entzun eta dantzatzeko

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Zapatuan Zabalotegin egin zuten gaztetxoendako DJ festak izan zuen arrakasta ikusita, ideiak jarraipena izango duela aurreratu dute Udaletik. "Gaztetxo asko joan ziren eta dantza baten ibili ziren guztiak, euren gustuko musika entzunda. Dagoeneko erabakita dago festa horrek jarraipena izango duela, eta maiztasun finkoa izatea da helburua, gainera", laburtu du Udaleko Hezkuntza teknikari Nagore Narbaitzak.

160 GAZTETXO BATERA

Bergarako Udalak eta 12-16 urte arteko herriko gaztetxoek bi talde osatu dituzte, 12-14 urteko gaztetxoena bat eta 14-16 urte artekoena bestea. Otsailean bilera pare bat egin zituzten eta bilera horien ostean jaso zuen Udalak DJ festa bat antolatzeko eskara gaztetxoenen eskutik. "Eurek egin zuten diskoteka planaren planteamendua eta musika nork jarriko zuen proposamena ere euren izan zen; alkoholik gabe, euren gustura egindako jaialdia izan zen", azaldu du Nagore Narbaitzak.

Akaso horregatik, arrakatsua izan da festa. "160 lagun sar daitezke gehienez Zabalotegi aretoan eta zapatuko festan kopuru horretara heldu ziren hara joandako gaztetxoak. Egia da ez zirela denbora guztian egon denak batera, sartu eta irten ibili zirelako, litxarreriak erostera eta, baina bai, 160 gaztetxo batera egon ziren", dio Narbaitzak.



Mutilak zein neskek, dantza batean.

JULIO CALLEJA

ILARAK MUSIKA AUKERATZEKO

DJ Fer eta DJ Angel aukeratu zituzten gaztetxoek musika jartzeko, eta denen eskaerak betetzen saiatu zen. "Zoramena izan zen. Momentu batzuetan 20 laguneko ilara egon zen abestiak eskatzeko", kontatu du Hezkun-

tza teknikariak. Denetarikoz musika entzun eta dantzatu zuten: Alejandro Sanz, Shakira, Paulina Rubio, reggaetona... eta baita euskal musika ere: Pirritx eta Porrotx, Kaotiko, Berri Txarrak, Ken 7... Nahasketak sekulakoak ziren: *Ikusi mendizaleak*



"Ikusi mendizaleak, baso eta zelaia...".

JULIO CALLEJA



DJ Angel eta DJ Fer, atzean.

JULIO CALLEJA

abestiaren bertsio bat entzutek Pirritx eta Porrotxen *Maite zaitut* entzutera pasatzen ziren eta Paulina Rubioren kantu bat dantzatzeko zuten segidan.

Festaren arrakasta ikusita, jarraipena finkatzeko lanetan hasi dira orain udal ordezkariak.

Negu partean hamabostean behin egingo dutela aurreratu dute dagoeneko eta hemendik urrira arte tarteka izango direla esan dute, "udan kanpoan egiteko ekitaldi gehiago ere badaudelako". Hurrengo festa apirilaren 24an izango da, 18:00etan.

ALDAKETAK

Aurrerantzean 18:00etan hasiko dira diskoteka saioak

Iluntzeko zazpietatik hamarretara iraun zuen zapatuan egin zuten gaztetxoendako lehen DJ festak. Ondorengoak ere hiru orduko musika jaialdiak izango dira, baina beste ordutegi bat izango dute: 18:00etatik 21:00etara. "Festa 12 eta 14 urte arteko gaztetxoendako da eta afalordurako etxera joatea ikusten dute zuzenena guraso askok. Horregatik pentsatu dugu festa ordubete lehenago hasia, 18:00etan. Hala, 21:00etan bukatuko dira eta modu horretara gazte-

txoak afaltzera etxera joateko moduan egongo dira", adierazi du Nagore Narbaitzak, Hezkuntza teknikariak. "Bestalde, asmoa da negu partean, urritik aurrera, hilean birritan egitea festa hori, gaztetxoak aspertu arte, behintzat. Uda partean ekintza gehiago ere izaten dira kanpoan egiteko modukoak, eta urrira bitartean ez du maiztasun finkorik izango jaialdiak. Oraingoan, apirilko eta maiatzeko egunak bakarrik zehaztu ditugu", gaineratu du Narbaitzak.

Datozen bi hilabeteak

Apirilak 24

18:00etatik 21:00etara
Zabalotegin 12-14 urte arteko gaztetxoentzat.

Maiatzak 15 eta 29

18:00etatik 21:00etara
Zabalotegin 12-14 urte arteko gaztetxoentzat.

URBANIZAZIOA > OBRAK ALDE ZAHARREAN

Apirilaren 6an hasiko dira Ferrerriasko plazako obrak

Erdiko kalea eta Ferrerrias lotzeko lanek lau hilabete iraungo dute

Egungo orubearen erdialdean egongo da plazatxoa; berdeguneak izango ditu alboetan

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Erdiko kaleak eta Ferrerriasek beste lotune bat izango dute las-ter. Izan ere, alde zaharreko bi kaleen artean plazatxo bat egingo dute, Casino elkarte gastronomikoaren orube zaharrean, hain justu. Plazatxo bat egokitzeaz gain, bi kaleak maila berean jarriko dituzte, egun dagoen 1,30 metroko altuera tartea gaindituta.

Ferrerriasko plazaren proiektua aspalditik dator, eta Pazko asteen hasiko dira lanekin. Hain zuzen ere, apirilaren 6an sinatuko dituzte obrak hasteko aktak. Obraren zuzendaritza Asmatu SL enpresarena izango da eta Udalak Construcciones Etxaide SA enpresari esleitu zion obra. Hasiara baten, lau hilabeteko epea zehaztu du Udalak lanak amaitzeko; proiektuaren aurrekontua 178.537 euro da.



Erdiko kalea eta Ferrerrias lotuko ditu plazatxoak; argazkia Ferrerrias kaletik aterata dago.

J.B.

PASABIDE SAMURRA

Plazatxoak 300 metro koadro inguru izango ditu, eta 18 metro inguruko zabalera. Plaza egungo orubearen erdialdean egokituko dute, eta, Udaleko Hirigintza Saileko teknikari Olaia Etxenagusiak jakinarazi duenez, alboetan berdegune txiki batzuk jarriko dituzte. Horretarako, Kuku izeneko dendaren biltegia zena bota egin beharko dute. Hala ere, obraren alde garrantzitsue-

DATUA

178.000

EURO PASATXO

Ferrerriasko plazatxoa eta ingurua egokitzeko proiektuaren aurrekontua 178.537 euro da. Prezio horretan esleitu zion obra Excavaciones Kataide SA enpresa eraikitzaileari.

na da bi kaleak lotzeko pasabide "samurra" jarriko dutela. Irisgarritasuna bermatuz, arrapala bitartez eta eskailerak tartekatuz, pasabide erraza jarriko dute.

Materialari dagokionez, harria, harlauzak eta egurra erabiliko dituzte plazaren barruan. Azkenik, udal ekipamenduetarako bi eraikin egokitu gura ditu Udalak; hala ere, proiektu hori geroago gauzatuko dela azaldu du Etxenagusiak.

JOKOA > DOKEA

Sardina erreak eta ardoa nork ordaindu, beste behin ere lehia estua espero da dokean

Elkarteen arteko 30. doke txapelketa jokatu da etzi; gero, bikote onenak Udaleko ordezkarien aurka neurtuko ditu indarrak

J.B. > ARRASATE

Joan den domekan gazte mailako -14 urtera arte- 26. doke txapelketa jokatu ostean, etzi, apirilak 2, elkarten arteko 30. doke txapelketa jokatu da. SUDC elkarteak antolatuta, hitzordua ohiko tokian izango da; hau da, Monterron parkeko beheko zelaitxoan (10:00). Herriko elkarte gastronomikoetako bikoteek elkarren aurka jokatu dute bikote onena nor den erabakitzeko.



Udal ordezkariak elkarten arteko onenen aurka lehiatuko dira.

GOIENKARIA

ELKARTEAK UDALAREN AURKA

Eta, aspaldiko ohiturari eutsiz, elkarteetako bikote onenak Udaleko ordezkariak osatutako bikotearen aurka lehiatuko dira. Noski, galtzen duen bikoteak ordain-

du beharko ditu ikusle eta lehiakideen artean banatuko diren sardina erreak eta ardoa. Bada, etzi historiara egingo da salto beste behin; ibarrean jokatzeko zen antzinako jokoa da dokea.

URTEURRENA

15 urte bete dituela ospatuko du Ekinek

J.B. > ARRASATE

Aurten 15 urte beteko dira AEDko emakumeen lantalde batek Ekin Emakumeak elkar-tea sortu zuela. Hala, ez dute urteurrena ospatu barik geratu gura, eta apirilean hainbat ekitaldi egingo dituzte.

HASTEKO, HITZALDI BAT

Ospakizun ekitaldiekin haste-ko, apirilaren 14an *Emakumeak Mondragoen* hitzaldia egingo du Ana Isabel Ugalde historialariak, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan (19:00).

Bestalde, astebete geroago eta leku eta ordu berean, Vanessa Gonzalezek ipuin kontaketa saioa gidatuko du: *Sutondoko ipuinak*.

> TXATXILIPURDI Begirale izateko izenemate epea, maiatzaren 7ra arte

Txatxilipurdi begirale bila dabil udalekuearako. Hona hemen izena emateko baldintzak: 18 urte edo gehiago izatea, euskaraz jakitea eta Txatxilipurdik antolatzen dituen begirale formazio saioetan parte hartzea. Izena emateko azken eguna da maiatzaren 7a. Aukeraketarako irizpideak hauexek dira: begirale titulu izatea, ikasketak izatea, esperientzia, lanerako presuntasuna eta bizilekua.

> TXIKITXU-ARROSTAITZ Bihar amaituko da ospakizunetan parte hartzeko izenematea

Txikitxu eta Arrostitz dantza taldeen urteurrenako ospakizunetan -lehenak 40 urte eta bigarrenak 20- parte hartzeko izenemate-epea bihar amaituko da. Urteurren ekitaldia urrian egingo dute, eta ordu-rako dantza taldean aritu diren guztiak batzea dute helburu. Izena emateko, 679 23 21 91 telefonora deitu.

oharrik

UDAL ZERBITZUEN
ORDUTEGIAK ASTE SANTUAN
> **Biztanleen Arreta Zerbitzua**
BAZ zabalik egongo da Pazko asteen, ohiko ordutegian: 08:30etik 19:00etara. Jaiegunetan itxita egongo da.

> Kulturate

Apirilaren 1ean, 2an, 3an, 4an eta 5ean itxita egongo da liburutegia. Pazko asteen zabalik egongo da, baina ez egun osoan, eguerdian itxita egongo da-eta. Hau izango da ordutegia: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:30era.

> Aukea

Apirilaren 1ean, 2an, 3an, 4an eta 5ean goizez bakarrik egongo da zabalik, 08:30etik 14:00etara. Egun horietan bulegoa itxita egongo da. Pazko asteen kiroldegia ohiko ordutegia izango du: 07:00etatik 21:30era. Bulegoa, berriz, goizez bakarrik egongo da zabalik, 09:00etatik 15:00etara.

Bestalde, Uarkape eta Iturripe itxita egongo dira apirilaren 1ean, 2an, 3an, 4an eta 5ean. Pazko asteen ohiko ordutegia izango dute.

> Autobus urbanoa

Pazko asteen ohiko moduan funtzionatuko du autobus urbano zerbitzuak. Aste Santuko egunetan, berriz, beste edozein jaiegunetako ordutegi bera izango du zerbitzuak.

MUSIKA > AURKEZPENA

The Dirty Brothers boskoteak 'Gure bidea' izeneko lan berria kaleratuko du datorren astean

Irati, Etxoste eta Iluntz tabernetan jarriko da salgai, 6 euroren truke; taldeak berak konposatutako sei abesti ditu diskoak

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Maiatzaren 1a arte aurkezpena egingo ez duten arren, The Dirty Brothers talde arrasatearraren *Gure bidea* izeneko lan berria datorren astean entzuteko aukera izango dugu. Diskoa Irati,

Etxoste eta Iluntz tabernetan egongo da salgai, 6 euroren truke.

SEI ABESTI BERRI

Josu Olaziregik, Aitor Aginagaldak, Jokin Azpiatzuk, Josu Alkortak eta Asier Salak osatzen dute taldea. Azken horrek jakinarazi digu lan berriak taldeak konposatutako sei abesti dituela. Orain arte kontzertuetan jo ez dituzten kantu berriak, hain justu ere. Baina hainbat talderen bertsioak ere sartu gura izan dituzte. Horretarako, hainbat taldetako musikariren kolaborazioa izan dute disko grabatzerakoan; tartean, RIPEko

Jul, Des-kontrolako hainbat kide (Oier, Hodei eta Urtzi), Enboskada, Iskanbila eta Never Surrender.

Salak taldearen hasiera gogorarazi du: "Hasieran, akustiko moduan hasi ginen bertsioak egiten, ondo pasatzeko helburu bakanarekin. Baina, denborarekin, gero eta gehiago elkartzen ginela ikusi genuen eta gauzak serioago hartu genituen, eta maketa simplea egitea pentsatu genuen, kontzertuetan egindako bertsioekin. Baina azkenean arriskatzea erabaki genuen, guk egindako sei kantu sartuta". Datorren astean entzun ahal izango dugu emaitza.



The Dirty Brothers talde arrasatearreko kideak.

ASIER SALA

UMEAK > KARTEL LEHIAKETA

Jaialdia iragartzeko kartela behar dute

Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsak antolatu du marrazki lehiaketa, 5 eta 9 urte artekoendako

M.B. > ARRASATE

Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsak Haur Hezkuntzako bosgarren mailako eta Lehen Hezkuntzako lehen hiru mailako ikasleei zuzendutako marrazki lehiaketa antolatu du; hain justu ere, 5 eta 9 urte bitarteko neska-mutikoei.

Konpartsaren entsegua kalean 2010 izeneko jaialdia antolatu zabil taldea eta hori iragar-

tzeko kartel lehiaketa gertatu du. Lanak aurkeztu apirilaren 14a baino lehen aurkeztu behar dira, Ttukun fotokopia dendan (Ferrerias 23). Lehiaketa irabazten duenari txapela eta konpartsaren kamiseta emango diote sari moduan.

JAIA, APIRILAREN 24AN

Orain dela bi urte egin zuen Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsak jaialdia lehen aldiz, umeei konpartsan egiten duten lana kaleratzeko helburuarekin. Aurten, apirilaren 24rako egin dute hitzordua.

Konpartsatik jakinarazi digutenez, horren gaineko egitaraua prestatzen dabilta orain, eta guztia lotuta izan bezain laster emango dute horren berri.

> ERAKUSKETA

Apirilaren 7tik 25era 'África, casa de palabras' bisitatu ahal izango da Kulturateko klaustroan

Kulturateko klaustroak beste erakusketa bat izango du datorren astean: *África, casa de palabras* izeneko, hain justu ere. Apirilaren 7an zabalduko dute; hil bereko 25era arte bisitatu ahal izango da. Erakusketaren bidez, herrialde horren gainean dauden estereotipoak suntsitu nahi dira, eta horretarako, Afrikako historia, kultura, fauna, bizimoduak, ohitura eta tradizio folklorikoak islatu dira.

Esaterako, *Cinco semanas en globo*, *Tarzán* eta *Memorias de África* eleberri eta film famatuekin, Afrikako lurraldea ezagutzen ikasiko dute erakusketara joaten diren neska-mutikoei. Askotariko ekintzez gain, eskultura, margo eta argazkiz ere osatuta dago; azken horiek hausnarketa egitera gonbidatzen duten testuekin daude lagunduta.

KIROLA > PILOTA

Txapel bi, Udaberri txapelketatik

Seniorretan, Ibai Bolinagak eta Aitzol Lazkanok Zumarragako bikote bati 22-14 irabazi zioten

Kadetetan, Aitor Etxezarretak eta Julen Moronek osatzen zuten bikoteak ere txapela jantzi zuen

M.B. > ARRASATE

Lan ona egin zuten aste bukarran Udaberri txapelketako finaletan Arrasateko pilotariek. Senior mailan, Ibai Bolinagak eta Aitzol Lazkanok Zumarragako bikote bati 22-14 irabazi zioten egubakoitzean, Astigarra-gan. Ordu eta erdi pasatxo iraun zuen partiduan txalotzekoa da Bolinagak egin zuen lana.

Kadetetan ere, Arrasatera etorri zen txapela. Zapatu goizean, Hondarribiaren kontra jokatuta-

ko norgehiagokan, 22-15 gailendu ziren Aitor Etxezarreta eta Julen Moron. Azken horrek oso ondo jokatu zuen; ordu eta laurden inguruko partiduan, oso seguru egon zen eta lau puntu bakarrik galdu zituen.

ETXAGIBEL, ESKUETATIK TXARTO

Bestalde, gazteek ezin izan zuten egubakoitz iluntzean Urretxuren aurka Adunan jokatutako finala irabazi. Danel Etxagibel eskuetatik ez zen ondo ibili eta



Bolinagak Lazkanorekin jokatuta.

GOIENKARIA

horrek eragina izan zuen. Beñat Arabaolatzak ondo jokatu bazuen ere, ezinezkoa izan zen garaipena eskuratzea eta lehia 22-17 amaitu zuten.

Udaberri txapelketa ez zen arrasatearrek asteburuan jokatuta zuten bakarra. Zapatuan,

Zizurko txapelketako finalean izan zen Markel Moron kimua. Ederto jokatu bazuen ere, ezin izan zuen garaikurra etxera ekarri; 16-15 amaitu zen partidua. Azkenik, benjaminen eskolarteko finalean, arrasatearrek bergarrei irabazi zieten.

AED

Antzerki ikastaroan izena eman daiteke

M.B. > ARRASATE

AEDk antolatuta, antzerki tailerra egongo da ostera ere herrian. Kukubiltxo antzerki taldeko partaide Jurgi Etxebarria arduratuko da emateaz, euskara elkartearen egoitzan. Eskolak apirilaren 16an hasiko dira eta ekainaren 18ra arte iraungo dute; egubakoitzetan izango dira, 17:30etik 19:30era. Dena dela, antolatzaileek jakinarazi dute ordutegia izena ematen dutenen artean adostu ahal izango dela.

Oraindik izena eman daiteke. Prezioa 45 euro da elkarreko bazkideendako; eta 50 euro, gainerakoendako. Interesatuek 943 77 12 28 telefono zenbakira dei dezakete.

JENDARTEA > KULTURA

Egubakoitzak alaitzeko erromeriak aurten ere

Apirilaren 23an eta 30ean eta maiatzaren 8an izango dira saioak, Munibe plazan; aurten ere afaria egongo da azkeneko saioarekin batera

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Egubakoitzak alaitu eta herritarrek dantzan jartzeko asmoz, erromeria sorta antolatu du Udaleko Kultura Sailak aurten ere, Moiazpi eta Abarka dantza taldeen eta Jardun euskara elkarrearen laguntzarekin.

Hain justu ere, apiril eta maiatzeko hiru egubakoitzetarako antolatu dituzte. Iaz maiatzean izan ziren guztiak; hain zuzen, *Maiatzeko erromeriak* izendatu zuen ekimena Udalak. Hala ere, apirilera aurreratzea erabaki

dute: "Maiatzean Pazkoak eta Musika Eskolako jaialdi bat daude, eta ez dugu nahi izan ekitaldi guztiak bat egitea", esan dute Udaleko Kultura Zerbitzuko ordezkariak. Horrekin guztia erekin, *Udaberriko erromeriak* izendatu dute aurten ekimena.

Hori horrela, hiru erromeriak izango dira apirilaren 23an, apirilaren 30ean eta maiatzaren 8an.

Horrekin batera, eta iaz bezala, erromeriekin batera beste ikuskizun batzuk ere egongo dira:

Erromerien egutegia

Apirilak 23

19:00 Moiazpi dantza elkarrearen erakustaldia; eta gero, Monik eta Eider trikitilariekin erromeria.

Apirilak 30

19:00 Gazte Alai dantza elkarrearen erakustaldia; eta gero, erromeria Izer, Alai eta Lutxurdio trikitilariekin.

Maiatzak 8

Kalejira herriko trikitilariak alaituta.
20:30 Erromeria-afaria; eta gero, erromeria Ansozregi eta Larrañaga trikitilariekin.

Saio guztiak Munibe plazan izango dira.

dantza erakustaldiak lehenengo bi egubakoitzetan eta afaria azkenekoan, erromeria sortari amaiera emateko.

Bestalde, aipatzekoa da lehenengo saioa egingo duten Monik eta Eider trikitilariak Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XVIII. lehiaketako irabazleak direla.

Emanaldiok Munibe plazan izango dira eta udal iturriek aurreratu dutenez, aurten karpa jarriko dute, euria eginez gero ere emanaldia han egin ahal izateko. Horrekin guztiarekin batera,



Neskatoak dantzan Munibe plazan egindako erromeria saioan.

GOIENKARIA

herritarrei dei egiten diete saiotan parte hartzeko. Duela hiru urte ekin zioten erromeria sorta antolatzeari. Erromeria dantzak zein giroa ez galtzeko ahalegina

izatearekin batera, urtean barrena antolatzen diren ikastaroen parte hartzen duten herritarrei ikasitakoa erakusteko aukera ematea ere badute helburu.

AISIALDIA > GAZTETXOAK

Umeendako jolas eta tailerrak egongo dira Pazko astean

Apirilaren 7an eta 8an izango dira, Seminarioko jolaslekuan

M.B. > BERGARA

Udaleko Kultura Departamentuak umeendako ekintzak antolatu ditu Pazko asterako. Hain justu ere, apirilaren 7an eta 8an izango dira, 17:00-19:00 ordu-tegian, Seminarioko jolaslekuan.

HIRU GUNE

Adinaren araberako hiru gune egongo dira: batetik, 3 eta 6 urte arteko umeendako gunea egongo da; bestetik, 6 eta 9 urte artekoendako; eta azkenik, 9 eta 12 urte artekoendako. Hori horrela, adinari dagozkion jolas eta tailerrak egingo dituzte gune bakoitzean.

Horrez guztiaz gainera, Eriz Magoaren emanaldia egongo da apirilaren 9an. Zabalotegi aretoan izango da, 17:00etan, eta sarrerak hiru euro balio du.



Umeak jolasean.

ARTXIBOA

JENDARTEA

Nagusi ezinduak zaintzeko ikastaroa

Apirilaren 20an hasi eta maiatzaren 26ra arte izango da, dohainik

M.B. > BERGARA

Mendekotasuna duten pertsona nagusien zaintza: jarrera eta gaitasunak hobetu, eurak zein norbere burua hobeto zaintzeko delako ikastaroa antolatu du Bizikasik. Apirilaren 20an hasi eta maiatzaren 26ra arte iraungo du, martitzenetik eguenera, 17:30-18:30 ordu-tegian.

Ikastaroan landuko dira, besteak beste: mendekotasuna duen pertsona nagusiaren zaintzarako oinarriko jarre-
rak eta gaitasunak eta demen-
tziak; mendekotasuna duen
pertsona nagusiaren oina-
rriko zaintzak. Ikastaroa
doan izango da, eta lehenta-
suna izango dute langabeek.
Izena emateko deitu 943 76 93
94 zenbakira edo idatzi
info@bizikasi.com helbidera.

> ZERBITZUAK

KZgunea itxita dago atzotik, martitzena, Irizar jauregia birgaitzeko lanak direla eta

KZgunea itxita dago atzotik eta halaxe egongo da apiril bukaera edo maiatz hasiera arte, bertoko arduradunen esanetan. Hain justu ere, kultura etxeko erakusketa aretoa KZgunea ipintzeko egokitu arte. Egin beharreko egokitzapenetako batzuk asteleheneko osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak. Atzora arte Irizar etxean egon izan da KZgunea, baina jauregia egokitzeko egitekoak diren lanak direla eta -maiatzaren 3an hastekoak dira-, eraikina laga behar izan du eta lanak bukatzean itzuli egingo da.

HHIren kasuan, Martokoko eskolara joango da Irizar lagatakoan. Hango egokitzapenak ere ontzat eman zituen astelehenean udalbatzak.

- Eguneko menua.
- Afariak aste bukaeretan.
- Pizzak.
- Terraza.
- Domeketan ere zabalik eta pizzak enkarguz eroateko.

ZUHAIZTI
Izarra eta konpainia,
zuen zerbitzura!

Espaloia 6 Bergara 943 76 59 22

> LEHIAKETA

Mendekoste jaietako kartela egiteko lehiaketa abian da

Mendekoste jaietako programaren azala egiteko lehiaketan parte hartzeko azken eguna apirilaren 13a da. Lehiaketan parte hartu ahaliko du Bergaran erroldatuta dagoen edonork, eta lehiaketan parte hartzeak dakar oinarriak onartzea.

Kartelek 24x34 zentimetroko neurria izango dute, eta formatu bertikala. Lehiaketaren irabazleak 600 euro eskuratuko ditu, baina saria eman gabe ere gera daiteke, epaimahaikoek horrela erabakiz gero.

> OROIMENA

Gerran hildakoen omenezko erakusketa Aroztegi aretoan

Hildakoak hilobietatik ateraz, duintasunak berreskuratuz erakusketa zabalik dago apirilaren 18ra arte Aroztegin. Espainiako gerran hildakoen oroimena eta duintasuna berreskuratzeko asmoz Aranzadi Zientzia elkarteak antolatuko erakusketa da.

Horren harira, gainera, apirilaren 14an, eguaztena, oroimen historikoaren gaineko hitzaldia egingo du Aroztegin Lourdes Herrasti, Aranzadi elkarteak antropolokoak. 19:00etan izango da.

> ORDUTEGIA

Aste Santuan Turismo Bulegoak ordutegi berezia izango du

Turismo Bulegoak ordutegi berezia izango du datozen asteotan. Aste Santua eta Pazko astea direla kontuan hartuta, apirilaren 18ra arteko ordutegia hau izango da: asteleheneetik zapatara 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; domeketan eta jaiegunetan 10:30etik 13:30era; apirilaren 1ean eta 2an 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; apirilaren 11n, domeka, itxita egongo da bulegoa.

KULTURA > MAGIA

Ikusleak aho zabalik utziko ditu Eriz Magoak Zabalotegin

Etxeko txikienei zuzendutako ikuskizuna apirilaren 9an, egubakoitza, egingo dute Zabalotegi aretoan, 17:00etan hasita; sarrera 3 euro kostako da

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Etxeko txikiak eta ez hain txikiak aho zabalik uzteko moduko ikuskizuna eskainiko du Eriz Magoak Zabalotegin. Apirilaren 9an, egubakoitza, izango da magia ikuskizuna, 17:00etan. Udalak Pazko asterako haurrentzako antolatu duen egitarauan sartzen da magia ikuskizuna.

ILUSIOA ETA FANTASIA

Eriz magoak mundu magiko batera sartzeko "ongiitorria" egiten du, non "ilusio eta fantasia apur batekin dena posible den". Ordu bete inguruko ikuskizuna izan-



Eriz Magoa Oñatin egindako ekitaldi baten.

GOIENKARIA

go da. Magia ikuskizunetan ohikoak diren tresnak erabiltzen ditu Eriz Magoak: kartak, animaliak, zapiak...

Haurren partaidetza ezinbestekoa izaten da magia ikuskizunetan: "Ikuskizun oso alaia da, dibertigarria... haurrak oholtza-

ra igotzen ditut eta oso ondo pasatzen dute". Egiten dituen trukuei begira, gurasoak ere aho zabalik geratzen direla dio.

KIROLA > ARETO FUTBOLA

Labegaraietako talde onena, Errotagain

Irailean hasi zuten liga 12 taldek; Aste Santuaren ondoren kopa txapelketa hasiko dute

A.E. > BERGARA

CM Errotagain izan da Labegaraietako futbol txapelketako talde onena. Liga orekatua izan da, eta azkeneko jardunaldira arte ez da erabaki txapelketa; hala, puntu bakarragatik irabazi dute. Bigarren tokian sailkatu da UD Akabauak eta hirugarrenean Diego Valor ile-apaindegia. 12 taldek

parte hartu dute liga txapelketan eta maila ona erakutsi dute, antolatzaileen esanetan.

KOPA TXAPELKETA

Apirilaren 10ean hasiko dute kopa txapelketa. Kanporaketa zuzenak izango dira; hala, maizteko lehenengo aste bukaeran jokatu dute finala.



Labegaraietako sari banaketa.

PEDRI

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

DRAGON ORIENTAL
Jatorria

Etxera
eramaten dugu
Edaria, postrea eta
tabakoa eramaten dugu

Zerbitzua Bergaran + 1,80 €
Inguruetara + 2 €

☎ **943 25 06 77**
Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Joxan Larrañaga > Parrokoa

"Pazko-gaubeila azpimarratuko nuke, ospakizunak dituen keinu eta esanahiarengatik"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Aste Santua ospatzeko prest topatu dugu Joxan Larrañaga erretorea. Gertu du guztia Jesusen nekaldia, heriotza eta piztuera ospatzeko. Larrañagarekin egin dugu berba datozen egunotan Eliza Katolikoak biziko dituen egunei buruz.

Dena gertu duzue Aste Santuari ekiteko?

Bai. Ospakizunak bihar hasiko ditugu, baina domekan ere elkartu ginen Erramu-domeka ospatzeko. Iaz egindako moduan, plazan bedeinkatu genituen erramuak eta ume eta heldu asko egon ziren.

Zer ospatzen du Eliza Katolikoan datozen hiru egunetan?

Jesusen nekaldia, heriotza eta piztuera. Eliza Katolikoarendako urteko egunik garrantzitsuenetarikoak dira.

Nola ospatzen dituzue Oñatin?

Egia esan, berezitasun asko barik. Eguenean Jesusen nekaldia ospatzen dugu, eta Sakramentu Santuaren Anaidiko kideek parte hartzen dute. Jesusek apostoluekin egindako moduan, oinak garbitzen dizkiet.

Bestalde, egubakoitzean Jesusen heriotza ospatzen dugu; eta zapatuan, piztuera.

Hiru egunak dira inportanteak, baina ze ospakizun azpimarratuko zenuke?

Zapatuan ospatzen dugun Pazko-gaubeila azpimarratuko nuke, dituen keinuengatik eta esanahiarengatik. Gure jai nagusia Pazkoa da, gure sinismenaren ezaugarri nagusia Jesusen piztuera da-eta.

Nolakoa da zapatuko ospakizuna?

Ospakizunaren hasieran parrokiako argiak itzungiko ditugu. Sua egin eta bedeinkatu egiten dugu, eta Pazko-zuzia pizten dugu. Orduan sartuko naiz elizara Jesusen piztuera aldarrikatzera. Ondoren, elizako argiak pizten joango dira *Aintza* eta *Alelu-*



Joxan Larrañaga, etxeko balkoian.

MIREIA BIKUÑA

"Aste Santuan Jesusen nekaldia, heriotza eta piztuera ospatzen du Eliza Katolikoak"

"Domekan elizkizun bakarra egingo dugu elizetan: 12:00etan bilduko gara parrokan"

ya abesten dugun bitartean. Bestalde, ura bedeinkatu egingo dugu eta uraren liturgiaren bidez gure bataioa berrituko dugu.

Domekan elizkizun bakarra egingo duzue.

Bai, hala da. Iaz egin genuen lehen aldiz, eta aurten errepika-

tu egingo dugu. 12:00etan bilduko gara parrokan Jesusen piztuera ospatzeko.

Herritar askok parte hartzen du Aste Santuko elizkizunetan?

Herritar asko oportetara joaten dela kontuan hartuta, ezin gara kexatu. Halako ospakizunetan, normalean, ohiko elizkizunetan parte hartzen ez duten aurpegi berriak ikusten ditut.

Urte eta erdi daramazu Oñatin. Hasieran zenituen helburuak gorpuzten hasi dira?

Poliki-poliki gabilta. Lortu ditugunen artean daude seigarren mailako ikasle talde batek katekesian jarraitzen duela, eta lan polita egiten dabilta. Bestelakoan, egitasmo asko ditugu eta lehen pausoak ematen gabilta.

> UDALA

Bidesarien kontra PPko zinegotziak aurkeztutako mozioa ez zuten onartu martxoko osoko bilkuran

PPko zinegotzi Julio Perez de Arriluzeak edukiera handiko errepedetan bidesariak jartzeko Aldundiak hartutako erabakiaren kontrako mozioa aurkeztu zuen martxoko osoko bilkuran. Udalbatzak ez zuen mozioa onartu. Zinegotzi popularrak esan zuen Aldundiaren erabakiarekin oñatiarrek "bi aldiz ordaindu" behar du dutela: "Lehenengo, zergak; eta orain, bidesariak". Gaineratu zuen alderdi popularra "ez dagoela ados" Gipuzkoako azpiegiturak dituen arazoei Aldundiak ematen dien irtenbideekin.

> ZERBITZUAK

Aste Santuan itxita egongo dira Udala eta kultura etxea; apirilaren 6an berriro zabalduko dituzte

Udal bulegoak eta kultura etxea itxita egongo dira bihartik astelehenera arte (apirilak 5). Apirilaren 6tik aurrera, berriz, ohiko ordutegiarekin zabalduko dute. Alde batetik, kultura etxea asteleheneratik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:30era eta zapatuetan 10:00etatik 13:30era zabalduko dute. Beste alde batetik, udal bulegoak zabalduko dituzte 09:00etatik 14:00etara.

Bestalde, Zubikoa kiroldegia itxita egongo da bihar, egubakoitzean eta astelehenean.

HEZKUNTZA > LEHIAKETA

Tecnun saria Txantxiku ikastolako ikasleendako

Patinekin oinez ibili ahal izateko gurpiletan jartzeko gomazko takoak asmatu dituzte

M.B. > OÑATI

Txantxiku ikastolako batxilergoko lehen mailako ikasle Ane Castaño eta Miren Fernandezek saria irabazi dute; hain zuzen ere, Nafarroako Unibertsitateko Ingeniarien Eskolako Tecnun elkarteak antolatzen duen lehiaketako sarietako bat irabazi dute, Donostiako Ekin-tza eskolakoekin erdi bana. Hain zuzen ere, patinekin oinez ibili ahal izateko gurpiletan ipintzeko gomazko takoak asmatu dituzte (ikus beheko irudia).

Gummi izeneko proiektuarekin Euskadiko Kutxako Gaztenpresak emandako saria jaso zuten zapatuan: egileendako, 500 euroko txeketa Decathlonen gastatzeko, eta ikastetxearendako 250 euro kirol materiala erosteko.

GOMAZKO TAKOAK

Gummi delako asmakizunak patinekin oinez ibiltzeko aukera ematen du. Goma bigunaz egindako takoak patinaren beheko aldean sartzen dira. Takoa material bigunez eginda dagoenez, gurpilaren formara egokitu eta patinetean itsatsita geratzen da.

Txantxiku ikastolako bi ikasleok egindako asmakizunarekin, aldapak igo daitezke patinekin. Gainera, patinekin ibiltzen uzten ez diguten tokietan, gomazko takoak ipinita, ez ditugu patinak kendu behar.

2008AN, BESTE SARI BAT

2008an ere Txantxiku ikastolako hiru ikaslek, Ainhoa Anduagak, Arantzazu Ugartek eta Miren Aranburuk, Tecnun saria irabazi zuten erraketendako gehigarri batekin. Hain zuzen, erraketetan tenis piloten potea eroateko gailua diseinatu zuten. 1.000 euroko txeketa irabazi zuten euren dako, eta oroi-garri bat ikastetxearendako.



Miren Fernandez, Roberto Maiztegi irakaslea eta Ane Castaño. TXANTXIKU IKASTOLA

Elizkizunen orduak, tokiak eta egunak

	EGUENA	ORDU SANTUA (EGUENA)	GURUTZE-BIDEA (EGUBAKOITZA)	EGUBAKOITZA	ZAPATUA	DOMEKA
Santa Ana	19:30	21:30	-	19:30	21:30	10:00
Beneditarak	18:00	-	-	18:00	21:00	12:30
Bidaurreta	18:30	22:00	19:30	17:00	21:30	-
Agustindarrak	19:30	-	20:00	18:00	20:30	-
Parrokia	18:00	22:00	09:00	17:30	21:30	12:00
San Martin egoitza	16:00	-	-	16:00	-	-
Koiskar	18:00	-	-	-	-	-
Olabarrieta	-	-	11:00	-	-	-
Zubillaga	-	-	11:00	-	-	-

INGURUMENA > URKULU INGURUA

Aozaratzak eta Goroetak arteko bidegorriaren lanak deituta

Areantzako bidegurutze paretik Goroeta auzoraino joango da; 363.717 euroko aurrekontua dute lanek eta Aldundiaren laguntza jasoko dute

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Urkulu urtegi inguruan egin gura duten bidegorriaren hirugarren zatiaren lanak egiteko lehiaketa deia egin du Udalak egunotan. Aozaratzak auzotik –Areantzako bidegurutzearen paretik– Goroetarainoko zatia izango da eta aurrekontua 363.717 eurokoa du –Aldundiaren dirulaguntza jasoko du–. Lanak egiteko interesa duten enpresek apirilaren 19a arte dute epea eskaintzak aurkezteko.



Urkuluko urtegi inguruan bidegorria egingo duten gunea.

M.A.

EZINTASUNAK DITUZTENENDAKO

Orain dagoen bidearen albotik joango da, zelaitik hain zuzen, Areantzako bidegurutze inguruan hasi eta komunaren atzetik Goroeta auzoraino. Bidegorri itxura izango du; hau da, lur gorrixka, eta oinezkoendako izango da. Gainera, irisgarritasun arazorik ez izateko egokituko dute eta itsuendako eta gurpildun

aulkian dabilzanendako egokia izango da; Braille hizkuntzan idatzitako seinaleak eta baranda jarriko dituzte bidean. Lanok bi hilabete egingo dituzte, hortaz, uda sasoirako gertu egongo da.

ERREPIDEARI BI METRO KENDU

Urkulu inguru guztia biziberritu eta suspertzeko abian jarritako planaren barruan dago bide-

gorria. Hainbat fasetan egingo dituzte lan horiek: lehen zatia, Aozaratzatik urtegirainokoa; bigarren zatia, urtegi bidegurutzetik Areantzako bidegurutzeraino; eta hirugarrena, laster hasiko dutena, Goroeta auzoraino. Lehen zatia egiteko Aozaratzako lurren jabeekin adostasuna lortu behar du Udalak eta bigarren zatirako, Aldundiko

Errepide Sailarekin. Izan ere, urtegi inguruko bidearen lehen zati horri 2 metro kentzeko asmoa dute bidegorria egiteko. Tarte horretan, 7 metro inguru ditu bideak eta autoendako 5 metro murriztuko dute. Bidegorria oinezkoendako bakarrik izango da. Bigarren zatiko lan horiek ere aurtan egingo dituztela uste dute Udal agintariek.

GIZARTE ZERBITZUAK > ERRETIRATUAK

Basotxoko taberna biziberrituko dute

Txukunberri Osoko Zerbitzuak enpresak hartuko du langilearen ardura hitzarmen bati esker

Basotxoko erretiratuek gura dute mugimendu handiagoa egotea tabernan

M.A. > ARETXABALETAKO

Astelehenean, hilak 29, egindako ohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak hitzarmena sinatzea Durangoko Txukunberri Osoko Zerbitzuak SL enpresarekin. Hitzarmen horren helburua da Basotxo erretiratuen elkarterko tabernaren ardura hartu eta hura suspertzea.

HIRU URTERAKO KONTRATUA

Hiru urterako sinatu dute hitzarmena –beste urtebetez luzatzeko

aukerarekin– eta tabernan lan egiten duen langilearen ardura hartu du. Formazio ikastaroak emango dizkiote eta zelan indartu taberna aztertu. Txukunberri enpresa, beste kontu batzuen artean, langabeen gizarteratzeaz arduratzen da eta eskarmentu handia dauka halako kontuetan.

Udal agintariek uste dute guztien onerako izango dela hitzarmen hori. Izan ere, Udalak 1992an eman zuen taberna errentan urtebeterako, beste urtebetez luzatze-



Basotxo erretiratuen elkarterko taberna.

M.A.

ko aukerarekin, eta ordutik hona berrikusi barik zeukan orduan hitzartutakoa. Hala, bada, langilearen lan egoerak nabarmen egingo duela hobera esan dute.

Bestalde, Basotxo erretiratuen elkarterko kideek uste dute gero eta erretiratu gutxiago joa-

ten dela tabernara eta ez daukala zerikusirik beste elkarter batzuetan egon ohi den giroarekin. Horregatik, gustura hartu dute Udalak sinatutako hitzarmena eta uste dute tabernaren jarduna hobetuta jende gehiago joango dela bertara.

> ERLIJOA

Elizkizun asko eta Izurietara gurutze bidea egunotan

Leintz Pastoral Barrutiko arduradunek hainbat elizkizun antolatu dituzte Aste Santua ospatzeko kristau elkar-tearekin. Bihar hasiko dituzte ekitaldiok bakarkako aitortzekin (11:00) eta arratsaldean Jesusen azken afariko eukaristiak egingo dituzte. Egubakoitzean, azken urteotan legez, gurutze bidea egingo dute Izurietara auzora (11:00) eta arratsaldean Jesusen nekaldiko elizkizunak izango dira. Zapatuan, Pazko Gaubeilak ospatuko dituzte eta domekan meza nagusia parrokiaren (11:30).

Auzoetan, osteran, ez da izango elizkizunik; bakarria Pazko Domekan, hilak 4, Aozaratzan (12:30).

> ATXILOKETA

Auto baten gurpilak zulatzeagatik lagun bat atxilotu dute

Joan den egun goizean 40 urte inguruko gizonezko bat atxilotu zuten ertzainek Aretxabaletan. Azken bi hilabeteotan hainbat aldiz zulatu dituela auto baten gurpilak egotzi zioten; hain zuzen, sasoi baten lan-harremana izandako emakumezko baten autoaren gurpilak.

Aretxabaletar batek salaketa zeukan jarrita Bergarako ertzain etxean, otsail eta martxoan hiru bider egin zizkiotelako kalteak autoan. Guztira, zortzi gurpil hondatu dizkiote. Ertzainak emakume horrekin lan-harremana izandako gizonezko baten atzetik zebiltzan eta egun goizean kalen aparkatuta zegoen auto baten bi gurpil zulatzen harrapatu zuten.

> ELKARTASUNA

Saharako egoeraren berri ematen duen filma apirilaren 12an

Sahararen alde lan egiten duten Debagoieneko elkarterek, tartean Aretxabaletako Iesbaak, Herri Sahararraren Giza Eskubideen Aldeko Astea egingo dute apirilaren 12tik 16ra. Filmak, berbal-diak, kontzertua eta beste hainbat kontu eskainiko dituzte Sahararen bizi duten egoeraren berri emateko debagoiendarrei.

Apirilaren 12an, astelehena, *Un grito desde el Sahara* filma eskainiko dute Aretxabaletan, Arkupeko Zeraia aretoan (19:00). Asteari bukaera emateko, Ismael Serrano kantautoreak kontzertua eskainiko du Arrasaten, Amaia antzokian (20:30).



Kenpo egongo da apirilaren 24an kiroldegian; goiko irudian, iaz Eskoriatzan egindako emanaldia.

ARTXIBOA

UDALA > KULTURA EGITARAUA

Kirol txapelketak, hitzaldiak eta liburuak, apirileko protagonistak

Datozen egunotan, gaztelekuak hartuko ditu ekimenak; tartean, Elantxobera hiru eguneko irteera dago

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Udaleko Kultura Sailak gertu du apirileko egitaraua. Pazko astean gaztelekuak hartuko ditu ekimenak. Apirilaren 6an, eskulanak egiteko aukera egongo da. Hurrengo egunean, afari-merienda egingo dute; eta apirilaren 8an, berriz, ping-pong eta mahai-futbol txapelketak jokatuko dituzte. Apirilaren 9tik 11ra, Elantxoben izango dira herriko gazte batzuk.

Ekimen gehienak, baina, oporren ostean izango dira. Apirilaren 18an, Aranguren mendira irteera egingo dute, Aitzorrotz elkar-teak antolatuta. 09:30ean irtengo dira herriko plazatik. Egun berean, goizean, eskola arteko areto-futbol txapelketa izango da; eta arratsaldean, Eskoriatza Hiria txapelketa jokatuko dute Eskoriatzak eta 21 urtetik beherako Euskal Selekzioak.

HITZALDIA ETA LIBURU AZOKA

Apirilaren 19an, Kutzak babestutako *Bakarrik bizitzea, bizikidetzaren alternatibak* hitzaldia egongo da kultura etxean, 17:30ean. Ibarraundin, bestalde, Victor Murillo kolonbiarrak *Educación de calidad, una mirada desde América Latina* hitzaldia egingo du, 19:00etan. Solasaldiekin jarraituz, apirilaren 22an, Karmele Jaio idazlea izango da, 18:30ean, *Musi-*

ka airean liburuaz hitz egiten; eta hurrengo egunean, *Liburu azoka 2x1* egingo dute plazan, 18:00etan.

Apirilaren 24an, Euskadiko kenpo txapelketa egingo dute kiroldegian, 16:00etatik 20:00etara. Apirilaren 26tik 29ra bitartean, tailer bereziak izango dira. Lehen etxe inguruan egiten ziren eta gaur egun horrenbeste egiten ez diren lanak egiten ikasteko aukera izango dute tailerretan parte hartzen dutenek.

JOLAS TRADIZIONALEN JAIA

Apirilaren 29rako ekimen bi daude aurreikusita. Maite Franco ipuin kontalaria Udal Liburutegian egongo da osterara ere, 18:00etan. Ordu berean, Gihar fisioterapia zentroko Aitor Odriozolak osteoporosi gaitzaren gainean jardungo du, kultura etxean. Hilabetea amaitu aurretik, jolas tradizionalen jaialdia egingo dute. Apirilaren 30ean izango da hori, 18:00etan.

ERAKUSKETA

Margo lehiaketako lanak ikusgai daude

Dagoeneko ikus daitezke domekan margo lehiaketan parte hartu zutenen lanak. Ibarraundi museoan egongo dira apirilaren 16ra arte honako ordutegian: apirilaren 1etik 3ra, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara; eta Pazko astean, astelehenetik egubakoitzera, ordu berean.

Bestalde, egunotan, gainontzeko udal zerbitzuen ordutegia jaso dugu: udaletxea eta liburutegia itxita egongo dira apirilaren 1etik 5era; kiroldegia ordutegi berezia izango du apirilaren 1etik 4ra, 09:30etik 13:00etara, eta apirilaren 5ean itxi egingo dute. Kultura etxean, azkenik, oporrak hartuko dituzte apirilaren 1etik 12ra bitartean.



Joan den domekan egindako lanak ikus daitezke museoan.

MIRIAN BITERI

AISIALDIA > IRTEERAK

Sagardotegia eta Portugal zain dituzte erretiratuek

Aurtengo kuota ordaindu barik duenak Olazar erretiratuen elkartetik pasa behar du martitzenean edo egunean, goizean

Hango pintxo gozoak probatzeko aukera izango dute erretiratuek orduan. Jarraian, 14:30ean, Usurbil ondoan dagoen Aginaga sagardotegian bazkalduko dute. Elkartetik esan digute oraindik irteeran parte hartzeko lekua badagoela, interesa duen edonorendako.

MAIATZAREN 4TIK 10ERA

Maiatzaren 4tik 10era, biak barne, Portugalera joango dira. Bidaia horren prezioa 455 euro da eta bi epetan ordaindu behar da: lehenengoa, 200 euro, izena emateko unean; eta bigarrena, gainerako 255 euroak, apirilaren 11n.

KUOTA ORDAINDU

Bestalde, erretiratuen elkartetik gogorarazi dute oraindik hainbat bazkidek aurtengo kuota ordaindu barik dutela. Ordainketa egiteko elkartearen bulegotik pasa behar dute honako ordutegian: martitzenean eta egunean, 11:00etatik 12:30era bitartean.

ERLIJIOA > ASTE SANTUA

Ospakizunak nagusituko dira datozen egunotan

Besteak beste, azken afariko eukaristia, kristau elkarteko afaria eta gurutze-bidea egingo dira

M.B. > ESKORIATZA

Aste Santuarekin batera ekimen erlijiosoak ugaritu egingo dira. Bihar, Eguen Santua, bakarkako aitortzak egongo dira 11:00etatik 12:00etara; eta arratsaldean, Jaunaren azken afariko eukaristia egingo dute parrokiari, 18:00etan. Bestalde, jakinarazi dute 20:00etan hasiko den kristau elkarteko afarian parte hartu nahi duenak Pilar

Galdosi eman behar diola izena. Eguna amaitu aurretik, 21:30ean, ordu santua izango da parrokiari.

Egubakoitz Santuan, 11:00etan, gurutze-bidea hasiko da; eta 17:00etan, Jaunaren nekaldiko ospakizuna. Zapatuan, 21:00etan, Pazko-gaubeila egingo dute. Pazko-domekan, azkenik, meza nagusia eta bataioa izango dira parrokiari, 12:30ean.

oharrak

UMEAK

> Artilezko borlekin eskulanak

Gaur, eguaztena, artilezko borlekin eskulanak egin ahal izango dituzte umeek ludotekan, 11:00etatik 13:00etara.

KIROLAK

> Areto-futbola apirilaren 10ean

Pazko astean areto-futbola dago. Apirilaren 10ean, etxekoek Arabako EHU taldearen kontra jokatu dute, 16:00etan.

ZERGA

> Ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar da

Aurtengo urteari dagokien trazio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar da. Zerga-ordainketa helbideratuta daukatenei maiatzaren 5ean egingo zaie kobrantza. Ordainketa helbideratu barik dutenek, berriz, maiatzaren 5era arte dute borondatezko ordainketa egiteko.

AZPIEGITURAK > LANAK

Bidegorria ekainerako erabilgarri izatea espero dute

Bidegorriko zati batzuk behin-behinekoak izango dira errepide nagusia egin arte

Oinezkoak eta autoak elkartuko dira bidegorriko zati batzuetan

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Martxa onean doaz Antzuolako bidegorriko lanak. Diputazioa dabil lanok egiten; hain zuzen, Gipuzkoako Garapen Iraunkorreko Departamentua. Otsailean hasi zituzten lanak, eta asmoa da ekainerako amaituta egotea. Hori da Udaleko aparejadore Valen Moñuxek azaldu duena.

AURREKONTUA

Zehazki, Bergara-Antzuola txirindulari eta oinezkoendako bidearen zatiaren lanak dira egiten dabilzanak. Diputazioak 675.960,10 euroko aurrekontua du lanok egiteko, eta bost hilabete epea. Lanak egiten Antzuola aldi baterako enpresen elkarrekin dabil.

Matz-erreka -Ibarreta- lantegi ondoan hasiko da bidegorria. Zati hori berriro egingo dute. Ortu inguruak txukundu egingo dituzte, eta bidea zabalagoa jarriko dute; gainera, argiteria publiko jarriko dute bidegorri zati horretan. Bidegorria Matz-erreka lantegiaren aurrealdetik pasako da, eta baita aparkalekuetatik ere.



Antzuolan egiten dabilzan bidegorriko lanak; bide zaharrean, hain zuzen.

A.E.

ZUBIA ZABALDU

Matz-errekako aparkalekutik Aitzira hartuko du bidegorriak. Gaur egun dagoen zubia -errepidea dena- zabaldu egingo dute bidegorria ere bertatik pasatzeko. Bidegorriak hiru metro inguru izango ditu zati horretan; Aiziti aurretik pasako da eta metro

batzuk igo ondoren bide zaharra hartuko du ezkerreko aldera.

"Bidegorriak zati horretan obra txikiagoa izango du", azaldu du Valen Moñux Udaleko aparejadoreak. Izan ere, Lapurzubirako zatia behin-behinekoa izango da: "Gero, errepide berria egiten denean -Beasain-Duran-

go autobidea-, errepideak bidegorriaren zati bat hartuko du", dio Moñuxek. Orduan, aldatu egingo dute bidegorriaren trazatua. Behin Galartzako zubitik aurrera Bergararaino jarraituko du bidegorriak. Hori, oraindik zehaztu barik dagoen hurrengo fase baten egingo dute.

Anelkarrek 3.000 euro batu dituzte Haitirako

Zapatuan Anelkarrek egindako afari solidarioan eman zioten 3.000 euroko txekia Leire Atxega Elizbarrutiko dinamizatzaileari (argazkian, eskuman). Atxega datorren hil bukaeran joango da Haitira eta Dominikar Errepublikara, kaltetuei laguntzera. Hitz eman du handik bueltan bere esperientziaren berri emango duela.

Anelkarrek eskerrak eman nahi dizkio Antzuolako herriari, nork bere mailan erakutsi duen elkartasunagatik.



JABI ETXANIZ

AZPIEGITURAK > PROIEKTUAK

Beasain-Durango eta AHT: erakusketa eta hitzaldia

Apirilaren 6an, 7an, 8an eta 9an izango da erakusketa eta hitzaldia apirilaren 8an

A.E. > ANTZUOLA

Beasain-Durango autobideko Bergara-Zumarraga zatiaren proiektua ikusgai dago eta alegazioak egin daitezke apirilaren 20a bitartean. Bestalde, AHTren Bergara-Antzuola tarterako desjabetzeen espedientea bidali dute Udalera. Proiektu horri alegazioak egiteko epea apirilaren 14an bukatzen da. Herritarrei informazioa errazteko asmoz, erakusketa eta

hitzaldia antolatu ditu Udalak datozen egunetarako.

BULEGO ORDUETAN

Bergara-Zumarraga errepidearen eta AHTren Bergara-Antzuola zatiaren proiektuak apirilaren 6tik 9ra egongo dira ikusgai udaletxeko batzar aretoan bulego orduetan.

Hitzaldia apirilaren 8an, eguena, izango da Torresoroan, 18:00etan.

ERRETIRATUAK

Batzar orokorra eta irteera Iratxera

Apirilaren 10ean izango da batzarra, erretiratuen elkartean, 17:30ean

A.E. > ANTZUOLA

Erretiratuen elkarteak dei egin du urteko batzar orokorrean parte hartzeko. Hilaren 10ean, zapatua, egingo dute batzarra erretiratuen elkartean bertan, 17:30ean.

Bi gai nagusi landuko dituzte batzarrean: batetik, 2009ko memoria irakurri eta diru kontuen azalpena eta onarpena izango dute; eta, bestetik, 2010eko ekintza eta aurrekontuen aurkezpena. Erretiratuek dei egin dute batzarrean parte hartzeko.

IRTEERA

Batzar orokorraz gain, erretiratuen elkarteak apirilko irteeraren berri eman du. Hain zuzen, apirilaren 14an egingo dute irteera Iratxera eta Los Arcosera.

Hilaren 14an, eguaztena, 09:00etan izango da irteera betiko lekuan. Iratxera egingo dute bisita lehenengo; han, luntxa hartu ondoren Los Arcosko Santa Maria la Realen bisita gidatua izango dute. Bazkaria, bingoa eta dantzaldia Iratxe hotelean izango dute erretiratuek.

Irteerara joan gura duenak izena eman beharko du. Izena emateko egunak dira apirilaren 6a eta 7a, 16:00etatik 18:00etara, erretiratuen elkartean bertan. Izena ematerakoan ordaindu behar da 31 euro pertsonako.

UDALA > NEKAZARITZA

Ganadua identifikatzeko lepokoak banatuko ditu Aramaioako Udalak

Behiek, ahuntzek eta behorrek identifikatuta egon beharko dute aurrerantzean

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Aramaioako mendietan dabilen ganaduaren kontrola eraman nahi du Udalak, eta, horretarako, ganadua identifikatzeko lepokoak banatuko ditu apirilaren 30era bitartean. Udaleko iturrien arabera, zenbaitetan inolako identifikaziorik ez duen ganadua iristen da erreperideraino eta gertatu izan da kalteak egitea eta inor ez egitea horren erantzule.

Ondorioz, Aramaioako mendietan solte dabilen ganaduak derrigorrez identifikazio lepokoak eta osasun saileko txapa eraman beharko ditu aurrerantzean. Aramaioako Udalak aurreratu duenez, Arabako Diputazioarekin batera, dagozkion neurriak hartuko ditu identifikatu gabeko ganaduekin. Hain zuzen ere, hori jasotzen duen bandoa kaleratu berri du Asier Agirre alkateak. Esan bezala, lepokoak udal txean daude eskuragarri.

Udalak emandako datuen arera, 55 behi, 111 ahuntz eta 147 behor inguru zeuden zenbatuta iaz Aramaion.

IBILGAILUEN ZERGA

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren errolda egin ondoren jendaurrean jarri da. Interesatuak egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak udal bulegoetan aurkeztu ahal izango

dituzte apirilaren 16ra bitartean. Izendatutako epean erreklamazioak aurkeztuko ez balitz, errolda behin betiko onartutzat hartuko da. Zergaren ordainagiriak apirilaren 26tik ekainaren 26ra, biak barne, ordaindu ahal izango dira borondatezko aldirian. Helbideratuta dauden erreziokoak, aldiz, datorren maiatzaren 5ean kobratuko dira.



Behorrak Aramaioako zelai baten, domekan ateratako irudian.

JULIO CALLEJA

AZPIEGITURAK > DIPUTAZIOAN BILERA

Errepidearen hobekuntzak nahi baino gehiago luzatzen ari dira, Udalaren ustez

Untzilla eta Zabola arteko errepidea maiatzerako asfaltuta egotea espero dute

E.M. > ARAMAIO

Asier Agirre alkateak bilera izan zuen egubakoitzean Arabako Diputazioan. Besteak beste, Errepide Saileko diputatu Luis Alberto Zarrabeitiarekin, Diputazioko teknikariekin eta Adifeko ordezkariarekin zuen hitzordua alkateak. Agirreraren arabera, gazi-goza izan zen bileraren emaitza: "Alde batetik, balorazioa ona da, mozututako errepidearen desbideraketa egiteko tramiteak abian jarri dituztelako. Baina bestetik, bide alternatiboan egin beharreko hobekuntzak nahi baino gehiago luzatzen ari dira". Untzilla eta Zabola arteko arekak konpon-



Zabola auzoan zirkulazioa erregulatzeko jarritako semaforoa.

JULIO CALLEJA

tzen dihardute egunotan eta maiatzerako asfaltatuta egotea espero dute. Kataiatik Untzillara arteko zatia ere zabalduko dute eta Induspetik Azkoagara bitartean egokitze lanak egitea

aurreikusten da. Azken zati honetan bidea metro bat inguru zabaldu eta bost puntutan bihurtzea txikitzearen aldekoa da Udala, ur handiagoetan sartu barik gaurko zirkulazioa kontuan hartuta.



Euskara zuzentasuna eta originaltasuna izango dituzte kontuan.

EUSKARA > TXIRRITOLA

Ipuin lehiaketan 55 lan jaso ditu Txirritola elkarteak

E.M. > ARAMAIO

Txirritola euskara elkarteak antolatutako ipuin lehiaketarako 55 lan jaso dituzte. Hain zuzen ere, joan den egubakoitzean bukatu zen lanak entregatzeko epea, eta antolatzaileak pozik dira jasotako erantzunarekin. Adinaren arabera, maila ezberdinak bereizi dituzte eta lan gehienak LHko 3. 4. 5. eta 6. mailakoek aurkeztu dituzte. Besteak beste, originaltasuna eta hiz-

kuntza zuzentasuna izango ditu epaimahaiak kontuan.

SARI BANAKETA, HILAREN 23AN

Sari banaketa ekitaldia datorren apirilaren 23an egingo dute, Liburuaren Nazioarteko Eguneko ospakizunarekin bat eginez. Ekitaldia Aramaioako kultura etxean egingo dute, 19:00etan, eta maila bakoitzeko lan onenak sarituko ditu Txirritolak.

AZPIEGITURAK > A-2620 ERREPIDEA

Udaleko ordezkarien aurkako betoa salatu dute

Ezker abertzalea, EA eta Ezker Batua-Aralarren ekimena atzera bota dute

E.M. > ARAMAIO

Ezker abertzaleak salatu egin du Aramaioako udal ordezkarien aurkako betoa Arabako Biltzar Nagusietan. A-2620 errepidearen itxiera dela eta, EAk, EB-Aralarrek eta ezker abertza-

leak batzarretan Aramaioako udal ordezkarien presentzia eskatu zuten, baina PPK eta PSE-EEk atzera bota zuten ekimena. Ekimenaren bultzatzaileek aramaioarren ahotan entzun nahi zituzten errepidearen itxierak egindako kalteak. Ezker abertzalearen ustez, agerian geratu da "lehen eta bigarren mailako arabarrak" daudela eta aramaioarren ahotsa entzun dadin ekimen gehiago bultzatuko dituela esan du.

ZINEMA > APIRILEKO PROGRAMAZIOA

'Mi nombre es Harvey Milk' filma emango dute etzi

E.M. > ARAMAIO

Etzi, egubakoitza, *Mi nombre es Harvey Milk* filma emango dute kultura etxean, Udalak antolatutako zinema emanaldien barruan. Film horrekin, Sean Penn aktoreak Oscarra irabazi zuen iaz. Apirilaren 9an, *Gordos*, Daniel Sanchez Arevalo zuzendariaren filmaren txanda izango da; apirilaren 17an, *Yo, también* emango dute (Lola Dueñasek eta Pablo Pinedak

Interpretazio saria irabazi zuten azken Zinemaldian); hilaren 23an, *Celda 211*, azken Goya sarietako irabazle nagusia (zortzi sari eraman zituen Daniel Monzonen filmak); eta apirilaren 30ean, *Avatar*, hiru Oscar sari irabazi berri dituen James Cameronen zientzia-fikziozko filma ikusteko aukera izango da.

Emanaldi guztiak kultura etxean izango dira, 22:15ean. Sarrera, euro bakar baten.

ELGETA > UDALA

Pasabideak margotuta

Salbador kale ostean margotu dituzten pasabide berriak errespetatzeko eskatu du Udalak

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Aurreko astean margotu zituzten Salbador osteko kalean garajeetako pasabideak. Bideberri mankomunitatearen *Auzolan* programaren bitartez egin dituzte lanok. Aurretik zeuden garajeetako pasabideak eta Salbador kaleko urbanizazio lanen ondorioz sortu diren berriak margotu dituzte. Oxel Erostarbe alkateak eskatu du seinale berriak errespetatzeko.

'KUDEATUZ' PROGRAMA

Udalak, bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen duen *Kudeatuz* programan sartu nahi du. Atzo batzartu ziren udal arduradunak Aldundiko ordezkariekin. "*Kudeatuz* programak bi ildo nagusi ditu", azaldu du Oxel Erostarbe alkateak. "Alde batetik, herritarren parte-hartzean oinarritutako proiektu bat aurrera eramateko finantzaketa eskaintzen du, eta, bestalde, Udalaren



Orain arteko pasabideei beste batzuk gehitu zaizkie Salbador osteko kalean. L.Z.

funtzionamenduari buruz herritarrek duten iritzia jasotzeko inkesta bat egitea ahalbidetzen du". Egitasmo hori dela-eta, lehenengo batzar bat besterik ez dute

egin, oraingoz, Elgetako eta Aldundiko ordezkariak. Udalak oraindik erabakitzeke dauka ze proiekturi buruzko eztabaida prozesua zabalduko duen.

ELGETA > 'HERRIXA DANTZAN'

Hileroko hitzorduak "sobera gaintitu ditu aurreikuspenak"

L.Z. > ELGETA

"Espaloiak arrakastatzen jotzen zuten 15-20 lagun biltzea, eta lehen egunean 50 lagun inguru bildu ziren dantzara, eta beste hainbeste begira". Patxi Monteroren hitzak dira. "Parte hartzeko jarraera, giroa, irribarreak, adin guztiak elkarrekin nahastuta, inguru osoko herrietatik bildutako jendea... Hori oso handia da".

ZUZENAKO MUSIKAREKIN

Domekako saioan Jainaga eta Narbaitzarekin egin zuten erromeria. Kalkulatu dute 80 bat lagunek egin zutela dantza. Sokan, korruan edo bikotean, dantza zaharrak zein berriak egin zituzten. "Aurrera begirako asmoak: jarraitzea, dudarik ez. Sokak ematen duen artean...", dio Monterok. Hurrengo, apirilaren 25ean.



Domekako saioa, Espaloian. Argazki gehiago: www.espaloia.com. JOSETXO ARANTZABAL

oharrak

OSPAKIZUNAK

> **Koadrilen Eguna ekainaren 12an izango da aurten**

Gisatu lehiaketa, koadrilen bazkaria eta bazkalosteko erromeria izango ditu aurten ere Koadrilen Egunak. Jai batzordea, bestalde, martxan da eta hasi da Ferixa Nagusiko jaiak prestatzeko batzarrak egiten. Hurrengo hitzordua apirilaren 14rako egin dute; 18:00etan elkartuko dira udaletxean.

ASENTZIO

> **Auzotarrek eta lur-jabeek udaletxean jaso behar dute giltza**

Lanak amaituta, ibilgailuek ezingo dute aurrerantzean Asentzioko putzuraino sartu. Angiozarrerako bidegurutzean mugatu dute sarrera. Oxel Erostarbe alkateak esan du auzotarrek eta lur-jabeek soilik izango dutela horretarako baimena. Ipiniko duten katea zabalteko giltza udaletxean jaso dezaketela esan du.

BOLETA

> **Elgetak ordezkariak ditu Gipuzkoako hiru txirilo txapelketan**

Bederatzi jardunaldi izango ditu txapelketak, eta bertan lehiatuko da bost lagunek osatu duten Elgetako taldea. Zapatuan Azkoitian jokatu zen lehenengo jaurtialdia eta Sebastian Arantzabal izan zen taldeko ordezkari bakarra; laugarren egin zuen. Elgetan apirilaren 24an jokatu da jardunaldia, 17:00etan hasita.

frontenis txapelketa

Finalerdiak apirilaren 18an, domeka, jokatu dira

Sailkatu diren bikoteak honakoak dira: Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi, Odei Zenigatoia-Mikel Beretxinaga, Adrian Gorostiza-Asier Osoro, eta Asier Untzetabarrenetxea-Asier Morales.

ASTE BUKAERAKO EMAITZAK

1. Adrian Gorostiza-Asier Osoro/Oskar Sarasua-Xanti Dosuna	25-18
2. Iban Retolaza-Xabier Ubera/Eneko Maguregi-Andoni Elortza	25-00
3. Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Asier Untzet.-Asier Morales	22-25

LEINTZ GATZAGA > GATZ MUSEOA

Goizez dago zabalik museoa jaiegunetan

Arratsalde ere zabalduko dute taldeendako

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Aste Santuko jaiegunak aurrez aurre izan arren, Eugenio Otsoa gatz museoak ateak zabalduko

ditu bisitariendako. Ohiko jaiegunetako ordutegia izango dute bisita gidatuek: 12:00etan euskaraz eta 13:00etan gaztelaniaz.

Museoko arduradun Aitziber Gorosabelek iragarri du talde batzuek dagoeneko hitzordua eginda dutela. Haien asmoa da Gatzagako altxorak eta parajeak bisitatu eta sasoi baten gatzaz elan egiten zuten ezagutzea museoan. Gainera, jakinarazi du taldeendako jaiegun horietako arratsaldeetan ere zabalduko duela museoa, txanda alde aurretik hartuz gero.

Apirilaren 6tik 9ra etorri gura dutenek ere aurretik egin behar dute hitzordua, lanegunak

direnez ez dutelako bisita gidaturik izango ohiko orduetan. Txanda hartzeko Labidea dendera deitu behar dute interesatuek egunotan telefonoarekin arazak izan dituzte.

DENDA ZABALIK

Turismo bulego den Labidea denda ordutegia, ostera, jaiegunetako izango da bihar hasi eta apirilaren 5a, astelehena, bitartean: 10:00-14:00 eta 17:30-21:00. Pazko asteko gainerako egunetan ohiko ordutegia izango du.

ELGETA

Mahai tenisa eta hiruko saskibaloia

Pazko asterako gazteendako bi kirol proposamen egin ditu Udalak

L.Z. > ELGETA

Hiruko saskibaloia txapelketa apirilaren 7an, eguaztena; eta mahai tenis jardunaldia apirilaren 10ean, zapatua. Bi proposamen horiek egin dizkie Udalak herriko neska-mutikoei opor egunotarako. Biak doan eta 8-18 urte bitarteko ume eta gaztetxoei zuzenduak.

Hiruko saskibaloia txapelketa 16:30etik 20:00etara jokatuko da kiroldegiko kanpoko zelaietan eta mahai tenisa 10:30etik 13:00etara gimnasioan.

MENDI IRTEERA LASTER

Ozkarbi mendi taldeak apirilaren 18rako antolatu du lehenengo irteera. 4-5 orduko iraupena duen Araotz-Orkatategi-Andaroto-Araotz ibilbidea da sortu berria den taldeak proposatzen duen ibilbidea. Apirilaren 12ra arte dago zabalik izena emateko epea udaletxean edo ozkarbi.menditaldea@gmail.com e-postan. Prezioa bost euro da, garraio gastuak ordaintzeko.

> ERLIJOA

Aste Santuko elizkizunak 18:00etan dira bihar eta etzi

Aste Santuko ospakizunak izango dira egunotan San Milian parrokiaren, eta Eguen eta Egubakoitz Santua ospatuko dituzte bihar eta etzi egingo dituzten elizkizunetan (18:00).

Zapatuan ez da elizkizunik egongo eta domekako meza nagusia ohiko orduan izango da (12:30).

FUTBOLA > GAZTE MAILAKO TORNEOA

Real Madrilek, Osasunak eta Realak jokatu dute Bergaran

Aste Santuan jokatu dute gazte mailako Realeko torneo aldaketa askorekin dator; Bergaran eta Azpeitian erabakiko dira finalistak

XABIER URTZELAI > BERGARA

Ohorezko gazte mailako liga txapelketan atsedetik egongo ez denez, aurtengo Aste Santuko gazte mailako Realeko torneo goitik behera aldatu dute. Hala, Azpeitian eta Bergaran hiruko kanporaketak jokatu dituzte domekan, hilak 4, eta kanporaketa horietatik erabakiko dute zeintzuek jokatu duten astelehenean finala (12:00).

Aurtengo torneoan Real Madril, Valentzia, Osasuna, Lisboako Sporting, Gipuzkoako konbinatua eta Realak izango dira

zein baino zein gehiago. Hala, partiduok jokatzeko denbora tarte laburra izango denez beste urte batzuetan baino talde gutxiago gonbidatu dituzte; hori bai, urtero moduan, etorriko direnak talde handietakoak izango dira.

SARRERA, 6 EURO

Aldaketa horrekin, baina, torneo hartuko duten bi herriek -Azpeitia eta Bergara- irabazi egin dute, partidu bakarra jokatu beharrean ikusleek hiruko kanporaketa ikusi ahal izango dutelako. Hala, Agorrosin futbol zelaian Real Madril, Osasuna eta Realak ikusteko zaleek 6 euro ordaindu beharko dituzte, eta diru sarrerak Bergarako futbol taldearendako izango dira.

Torneoko fase erabakigarria, berriz, Zubietan jokatu dute astelehen goizean -Realeko bazkideak doan sartu ahal izango dira-. Partiduak 10:30ean hasiko dira, baina Azpeitik eta Bergarako talde onenek 12:00etan jokatu dute finala.



Realeko torneoak maila gorenera iristen diren jokalariek ekartzen ditu gurera. Erretratuan Griezmann taldekideekin, iaz. GOIENKARIA.

Egitaraua, eguna-ordua

Apirilak 4, domeka (Azpeitia)

16:30 Spt. Lisboa-Valentzia

17:30 Gipuzkoa-Aurreko galtzai.

18:30 Gipuzkoa-Aurreko irabazl.

Apirilak 4, domeka (Bergara)

16:30 Real Madril-Osasuna

17:30 Realak- Aurreko galtzaila

18:30 Gipuzkoa-Aurreko irabazl.

Apirilak 5 (Zubieta) Finalak

10:30 5. eta 6. postuak

10:30 3. eta 4. postuak

12:00 Finala (ETB1)



Agorrosingo harmailak beteta, iaz Realaren eta Athleticen arteko lehia. GOIENKARIA.

PIRAGUISMOA > TXAPELKETA

Beti Bustikoak Lleidan izango dira Aste Santuan lehian

Seo de Urgel herriko uretan lehiatuko dira apirilaren 9an eta 10ean; horrekin batera, Pirinioetako Kopan esku hartzeko asmoa ere badute

X.U. > BERGARA

Bergarako piraguistek ez dute Aste Santuan atsedetik hartuko, Seo de Urgelen (Lleida) antolatuko duten txapelketan izango dira eta esku hartzen. Horrekin batera, baliteke Pauera (Frantzia) ere joatea, Pirinioetako Kopan esku hartzera.

GAZTETXOAK IRUNEN IZAN DIRA

Joan den asteburuan, berriz, Beti Bustiko gaztetxoak Irunen izan ziren lehian. Bergarako klubetik lau piraguista izan ziren txapelketan. Jokin Labaien (K-1) seiga-



Ana Usabiaga zazpigarren izan zen K-1en, eta laugarren C-1en.

BETI BUSTI

rren sailkatu zen infantil A mailan; eta infantil B mailan Asier Gonzalez hirugarren izan zen. Ana Usabiagak bi lasterketatan hartu zuen esku: K-1 modalitatean zazpigarrena izan zen eta laugarren C-1 modalitatean. Gorka

Marquezek ere lan bikoitza egin zuen (K-1 eta C-1), eta bi probetan bigarren izan zen.

Amaitzeko, Sandra Tabaresek irabazi du klubekoek egindako zozketa (Ruiz de Viñaspeko ardo-sorta).

> FUTBOLA

Aretxabaletak gaur, eguaztena, jokatu du sailkapenaren erdian dagoen Basconiaren zelaian

Aretxabaletak Bilbora egingo du bidaiaria gaur, Basconiaren kontra jokatzera (20:00). Ligako 33. jardunaldia dago jokoan, geratzen diren sei finaletako bat. Joan den astean Durangoren kontra etxean galdu eta gero aretxabaletarrek ilun ikusten zituzten gauzak; matematikak alde batera utzi eta geratzen diren partiduetan dena emateko ordua da. Eibarrek (36) Aretxabaletak (34) baino bi puntu gehiago ditu, eta lau puntura dago Santurtzi.

> MENDIA

Iban Letamendi oñatiarra azkarrena izan zen Andres de Regil mendiko eski lasterketan

Joan den asteburuan egin zuten Potesen (Kantabria) Andres de Regil-BBK Saria, eta bertan Iban Letamendi oñatiarra izan zen azkarrena -Aitor Otxoa izan zuen bikotekide.

Lasterketan eskiazaile asko izan ziren (81) eta horietatik erdia Euskal Herritik joandakoak ziren. Azkarrena, baina, Oñatiko eskiazailea izan zen. Lasterketa hori izan da Euskal Mendizale Federazioko egutegiko azken proba.

> TXIRRINDULARITZA

Lokatzak apirilaren 8an egingo du batzarra, aurrean dituzten lasterketak prestatzeko

Apirila eta maiatza hilabete gogorrak izango dira Lokatza Ziklismo Eskolakoendako, hainbat lasterketa antolatu beharko dituzte-eta. Lehenengoa gazte mailako klasikoa izango da -apirilak 10-, baina ondoren etorriko dira beste hitzordu asko ere.

Hala, Lokatzako zuzendaritzakoek dei egiten diete klubeko kideei batzarrean esku hartzera (apirilak 8, 20:00etan).



> **ETXE 'OSASUNTSUA'**
Ikastaroa izango da; irakaslearekin izan gara > 22



> **MUSIKA**
Mery May Gaztearen maketa lehiaketako finalista da > 22

> **JONE LARRAÑAGA**
Antzuolarra da, 16 urte ditu eta horietatik 10 darama margotzen; orain dela gutxi, erakusketa egin zuen herrian > 25



Grabazioak aurten amaitzeko desioz, aurrera doa 'Bertsolari'

FIM LUZEA

Asier Altunak gutxienez 70 minutuko filma egiteko asmoa dauka

DIRULAGUNTZA BILA

Grabazioekin aurrera egiteko diru bila dabil Txintxua Films

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Otsail amaieran izan genuen Asier Altuna *Kixi* zuzendari bergararra zuzentzen dabilen *Bertsolari* dokumentalaren aurrerapenaren berri, Interneten. Hain zuzen, Andoni Egañarekin elkarrizketa eta BECeko finaleko irudiak nabarmen-tzen dira 12 minutuko aurrerapenean. Bete du helburua, ikuslea gehiagoren zain utzi du-eta. Hala ere, Altunak dioenez, aurrerapenak ez du filmarekin zerikusirik.

"PRESA BARIK, BAINA JARRAIAN"

Itxaron egin beharko dugu *Bertsolari* ikusteko; *Kixi*-k hauxe aurreratu du: "Grabazioak aurten amaitzea, seinale ona".

Proiektua gauzatzeko pasatzen utzi ezin zitezkeen irudiak grabatu behar izan dituzte, hala nola Bertsolari Txapelketa eta duela aste bi Andoni Egañak eta



Andoni Egañak protagonismo berezia izango du dokumentalean; *Kixi* BECeko finalaren aurretik izan zen harekin. TXINTXUA FILMS

Maialen Lujanbiok San Frantziskon (AEB) eskaini zuten bertso saioa. AEBetako bidaiaria Joseba Zulaika Renoko Unibertsitateko antropologia irakaslearekin egoteko aprobetxatu dute, Zulaikari bertsolaritzaren gainean ikuspuntu antropologiko eta sozialetik galdetuta. Dokumentala "presa barik, baina jarraian" zuzendu gura du Altunak, eta bi fase bereiztu ditu: elkarrizketen grabazioa eta elkarrizketak irudi ezberdinez jostea. 20 bat elkarrizketa aurreikusten ditu, baina oraindik ez da zerrenda itxi; are gehiago, zabal-tzen doa. Elkarrizketekin Aste Santu ostean hasiko da. Lehen fase horren ostean, elkarrizketak ondo analizatu eta aurrez zein ondoren hartutako irudiekin josiko dituzte. Post-produkzio lan mardula, beraz: "Elkarrizketek sortuko duten testua itzela izango da eta ondo sintetizatu behar dugu. Gainera, bertsolariaren barne prozesua irudikatze irudi digitalak [hiru dimentsiotan sortutakoak] sartu nahi ditugu eta horrek lana eskatzen du", dio Altunak.

FINANTZAKETA BILA

Halako lana aurrera eramatea, baina, ez da merkea. Txintxua Films ekoiztetxeak "sekulako apustua" egin du *Bertsolari*-ren alde, baina dirua behar dute. Hala, Altunak eta haren taldeak dirulaguntza bila dihardute, "ohiko iturrietatik zein bestelakoetatik".

Asier Altuna > Zuzendaria

"Bertsolaritza kanpoan ezagutaraztea da helburua"

J.B. > BERGARA

Bertsolari dokumentala "lasai eta presa barik" zuzendu gura du Asier Altuna *Kixi*-k (Bergara, 1966), film "osatu eta kalitatezkoa" irten dadin. BECeko finala grabatu ostean beldurra galdu duela dio zuzendari bergararrak, hasieran gaia handiegi geratuko zitzaioela uste zuen-eta.

Nola eta zergatik sortu zen *Bertsolari* proiektua?

Aspalditik datorren kontua da. Baina gaiak sortzen didan errespetuak eta beste lan batzuetan murgilduta egoteak atzeratu egin du prozesua. Hala ere, txapelketa nagusiko finala zetorrela ikusita, eta beste lau urte itxarotea pentsaezina zenez, proiektuari ekitea erabaki genuen. Izan ere, bertsolaritzak betidanik erakarri nau, eta, gainera, Euskal Herri-rik kanpo oso gutxi ezagutzen den

diziplina da; kanpoan ezagutaraztea da helburu nagusietako bat.

Bertsolaritza ezagutzen ez duenari begira ari zara, beraz.

Ikuspuntu horretatik ari gara lanean. Hala ere, bertsolaritza ezagutu eta gozatzen duenak ere gustura ikusiko duela uste dut.

Nola erakarriko duzu, bada, bertsolaritzaz ezer ez dakiena?

Bertsolaritzaren gainean erreportaje informatibo soila egin beharrean, kutsu zinematografikoa emango diogu. Izan ere, pelikula moduan aurkeztuta, bertsolaritza kanpoan ezagutaraztea errazagoa izango da; zinema jaialdietan, kasu,



GOIENKARIA

Gutxienez 70 minutuko ikus-entzunezkoa duzu buruan. Zein gai nagusi landuko dituzu?

Bertsolaritza ezagutzeko beharrezkoak diren hainbat elementu jorratuko ditugu. Historia, bilakaera, inprobisazioa, gogoeta... hamaika kontu. Ideia orokor bat daukat, baina oraindik ez dakit zehazki zein gai aukeratu ditudan erreportajerako. Orain artxibo on bat izateko irudiak ari gara hartzen, eta guztia bildu ostean ikusiko dugu nola borobiltzen dugun.

Inprobisazio lanik ez zaizu faltako, hortaz; bertsolarien moduan...

Hala da, filmak ere izango du bere bat-batekotasun puntua...

Asier Arregi > Etxeko osasunaren gaineko ikastaroaren irakaslea

"Gaixotasun larriak agertzen diren kasuen %80an eragina du gaixoaren inguruneak"

JOKIN BEREZIARTUA > ARETXABALETAK
Etxeko osasunaren gaineko ikastaroa egingo dute Arkupe Kultur Etxean. Aste Santuko oporretatik bueltan, apirilaren 15ean, hain zuzen, hasiko dute ikastaroa eta Asier Arregi geobiologo eibartarra izango da irakaslea. Astelehen eta egueneetan bilduko dira eta bi orduko zazpi saio egiteko asmoa du Arregik. Izenematea zabalik dago; matrikulak 120 euro balio du.

Zein gai landuko dituzue etxeko osasuna abiapuntu duen ikastaroan?

Hasteko, esan beharra dago logelan eta ohean zentratuko garela bereziki ikastaroan zehar, hor da-eta, gure ustez, etxeko txorrik garrantzitsuena. Izan ere, gure bizitzaren herena hantxe egiten dugu. Hori jakinda, hainbat arlo jorratuko ditugu.

Geobiologia landuko dugu, gure bizilekua inguratzen duten aldagai naturalek -lurraren energiak, ur korranteak, lur azpiko aldagaiak- noraino eragin dezaketean neurtu eta senti-



Asier Arregi.

tzeko. Bestalde, bioeraikuntza aztertuko dugu, etxea eraikitze-rako orduan gomendagarriak diren material naturalak zeintzuk diren jakiteko.

Zein garrantzia dute ikastaroan ikasiko diren gaiak gure osasunean?

Etxeko osasuna, finean, gure osasuna da. Etxea gure gorputzeko hurrengo azal-geruza moduan

ulertu behar dugu. Izan ere, gaixotasun larriak aurkitzen direnean, %80etan-edo eragina izaten du gaixoaren inguruneak, ingurune hori nola dagoen jarrita, hain zuzen. Hortaz, eragina uste baino zuzenagoa da: gaixotasunetan hainbat faktorek eragiten dute batera baina ia beti aurkitzen da ingurunearen edo etxebizitzaren faktorea, edo lanpostuarena.

Adibide bat jartzerik bai?

Haurrak oso sentiberak dira halakoetarako. Esaterako, askotan gertatzen da umeak modu batera ohean jarri eta beste alde-bera begira esnatzen direla. Horrek esan gura du oheko puntu jakin batetik ihes egiten dutela. Bada, ikastaroan puntu horiek antzematen ikasiko dugu, nahiko modu errazean; denek ikasten dute.

Nori dago zuzenduta?

Edozeinendako dago pentsatuta. Hala ere, bereziki emankorra izaten da etxeen diseinuan aritzen direnendako: arkitektoak edo aparejadoreak, kasu.



Mery May musikari arrasatearra beti alboan daraman gitarrarekin. GOIENKARIA

MUSIKA > LEHIAKETA

Mery May, Gaztea maketa lehiaketako onenen artean

'Free like an eagle' abestiarekin lortu du arrasatearrak hamar onenen artean sartzea

J.B. > ARRASATE

Danbaka musika lehiaketak eza-egin egin zuen Maria Fagan edo, agertokian esanda, Mery May, EITBko Gaztea irratiak antolatzen duen 19. maketa lehiaketako hamar finalistaren artean sartu da, eta Debagoieneko ordezkari bakarra izango da. Musikari arrasatearraren *Free like an eagle* abestia lehiaketako hamar onenen artean kokatu du epaimahaiak. Lorpen handia da Mery May-ena, 500 abesti inguru aurkeztu dira-eta.

IRABAZIZ GERO, 'BBK LIVE'-ERA

Hamar finalista, beraz. Epaimahaiaren saria eta entzuleen saria apirilaren 29an jakinarar-

ziko dira. Epaimahaiarendako onena den talde edo bakarlarriak 6.000 euro dirutan, bideoklip baten grabazioa eta *BBK Live* musika jaialdi entzutetsuan jotzeko aukera irabaziko ditu. Sariak merezi du, zalantza barik.

Bestalde, Entzuleen Saria eskuratzen duenak 2.000 euroko saria jasoko du eta, gainera, *Gaztea Live* saioan zuzenean jotzeko aukera izango du. Hamar finalistek kontzertua eskaini zuten joan den astean Bilborock aretoan, eta kontzertu horretako irudiak ikusgai daude Interneten; hona helbidea: www.eitb.com/gaztea. Botoa emateko azken eguna da apirilaren 28a.

MUSIKA > KONTZERTUA

Angerrek eta Gosek Espaloian joko dute

Bi talde arrasatearrak apirilaren 17an joko dute Elgetan (22:00); sarrerak laster jarriko dituzte salgai

J.B. > ELGETA

Aste Santuko oporren bueltan kontzertu interesgarria izango da Elgetako Espaloia antzokian. Arrasateko taldeak biak, etxekoak, eta sasoi puntu bikainean daudenak, gainera: Anger eta Gose. Hasteko, *Sedukzioaz* lan berria aurkezteko birarekin jarraituz, Anger laukotea igoko da agertokira. Hala, Arkaitz Biain abeslariaren gidaritzapean disko berria aurkeztuko die elgetarrei. Diskoak oso kritika onak jaso ditu, eta taldearen bilakaera oparoaren adierazle garbia da.

GOSE, IKUSKIZUNA BERMATUTA

Emanaldia Gosek borobilduko du. Japoniako irudiekin osatutako *Lokartu arte* abestiaren bideoklipa labetik atera berri, beste ikuskizun bat eskainiko du hirukoteak, Ines Osinaga buru duela. Izan ere, egun ikuskizuna bermatzen duen taldea da Gose, arrakastaren lainoan hankak ezartzea lortu duen proposamena, hain zuzen.



Gose taldea, kontzertu baten.

GOIENKARIA

GOSEREN BIDEOKLIPA

'Lokartu arte' abestia, Japoniako irudiez josia

Gose beste eskaintza batekin dator; orainoan, bideoklip berri baten txanda da. Izan ere, hirukote arrasatearrak Japoniako biran hartutako irudiekin bideoklipa kaleratu du. Labetik atera berri dute, duela astebete eskas jarri zuten-eta ikusgai interneten.

Gorria diskoko *Lokartu arte* abestia erabili dute bideoklipa grabatzeko eta lau minutu eta erdi eskas irauten duen ikus-entzunezkoan Japoniako hamaika irudi erakusten ditu. Izan ere, bideoa hainbat unetan pantaila berean lau pantaila erakusten dituzte, irudiak etengabe tartekatuz. Lan txukuna, beste behin.

> MUSIKA

Ismael Serranoren kontzerturako sarrerak salgai daude dagoeneko

Ismael Serrano musikagile madrildarrak kontzertua eman- go du apirilaren 16an Arrasateko Amaia antzokian. Emanaldia 20:30ean hasiko da. *Acuérdate de vivir* disko berriarekin dator; izan ere, apirilaren 6an kaleratuko du -haren bederatzigarrena izango da-. Hala, hamar egun eskas pasa eta gero, Arrasatera etorriko da diskoa zuzenean aurkezteko. Lan berria, autoreak dioenez, "etorkizunera begirada bat" da.

Dagoeneko salgai daude sarrerak, honako helbidean: www.generaltickets.com/kutxa. Sarrerak 28 eurotan salduko dira.

> KULTUR ESKAINTZA

Oñatira azaroan helduko da Kutxaren 'Kultur' zirkuitu berria

Kutxak aurkeztu berri duen *Kultur* zirkuituak geldialdia egingo du Oñatin. Ekimen berri honek izen handiko autoreak talentu berriekin tartekatzea du helburu. Hala, goi mailako ekitaldiak eskaintzeaz gain, herriko kultur taldeei bultzada bat emateko balioko du. Hala, Gipuzkoako bost herritan egingo du geldialdia *Kultur* zirkuituak: Irunen -apirilaren 16an-, Tolosan -maiatzean-, Zarautzen -ekainean-, Donostian -urrian-, eta Oñatin -azaroan-. Oñatira, beraz, uda ostean helduko da eta antolatzaileek adierazi dutenez, oraindik ez dute azaroko eskaintza zehaztu.

Herri Sahararraren giza Eskubideen aldeko astea Debagoienez

Apirilaren 12tik 16ra

EGITARAUA

APIRILAK 12 ASTELEHENA

19:00 Aretxabaletan *Un grito desde el Sahara* dokumentala, Arkupe kultura etxean.
PTM/Mundubat-ek eskainita.

APIRILAK 13, ASTEARTEA

18:30 Arrasateko Biteri ikastetxe nagusian AFAPRESA elkartearen (Saharar Preso Desagertu eta Senitartekoen Elkarte) hitzaldia Mendebaldeko Sahararen egoeraren gainean.

APIRILAK 14, ASTEAZKENA

19:00 Oñatin *Un grito desde el Sahara* dokumentala, kultura etxeko areto nagusian.

APIRILAK 15, OSTEGUNA


21:00 Eskoriatzan afari-tertulia Mendebaldeko Sahararen egoeraren gainean, Elizoste elkartearen.

(Izenematea apirilaren 13a baino lehen: 626 63 91 64 edo 685 72 48 17;
nubielkartea@gmail.com edo *iesbaa@gmail.com*)

APIRILAK 16, OSTIRALA

20:30 Arrasaten Ismael Serranoren kontzertua, Amaia antzokian.
Sarrerak: www.kutxa.net

LAGUNTZAILEAK:



ANTOLATZAILEAK:



Atera etekina txartelari!

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.

Deskontu bereziak



BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)

- Laser depilazioa: hanka osoa + izterondoak
- **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.



ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA

- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.



ARRASATE/OÑATI

- Sukalde osoa erositako, etxetresna elektriko bat opari.



BERGARA/ARRASATE

- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).



ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) ARRASATE

- **-%2** gasolindegian erregaia erositako.
- **-%2** dendako produktuetan.



ARRASATE/OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)

- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.

Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01



ARETXABALETA

- **-%15** zerbitzu guztietan.



CLINICA DENTAL BERGARA

BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)

- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

DONOSTIA

- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.



DONOSTIA

- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).



BERGARA

- **-%15** inskripzioa ordaintzean.



DONOSTIA

- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.

Telefona: 943 25 05 05 | Posta-e: kluba@goiena.com

Jone Larrañaga > Margolaria

"Jendeak nire lanak ikusteak lotsa ematen dit; oraindik ez dut maila onik"

Margolari gaztea dugu Jone Larrañaga antzuolarra. Sei urte zituenetik margotzen du; horretan ona zela eta, pintura eskolatan hasi zen. Orduetik hona, denbora luzea eskaintzen dio margolaritzari. Martxo hasieran bere lanen erakusketa egin zuen Larrañagak, Antzuolako kultura etxean. Horrez gain, Batxiler Artistikoa egiten dihardu Arrasateko institutuan.

NAROA ODRIUZOLA > ANTZUOLA

Eskuetan abilezia izan behar da margotzeko eta Jone Larrañagari ez zaio horrelakorik falta. Duela hamar urte hasi zen margotzen. Orduetik hona, aldaketak izan ditu eta horiek bere lanetan islatzen dira. Urteekin eta praktikarekin antzuolar horren lanek hobera egin dute. Larrañagarekin izan gara bere lanaz berba egiteko.

Pintura gustuko duzu. Zein pintura mota?

Txikitatik, batez ere, olio pinturarekin ibili izan naiz. Orain dela gutxi, akuarela teknika eza-gutu dut eta horretan nabil.

Noiztik margotzen duzu?

6 urte nituenetik margotzen dut. Amak ikusi zuen marrazten beste gauza batzuetan baino hobea nintzela eta marrazketa-ra apuntatu ninduen.

Nondik datorkizu pinturarekiko zaletasuna?

Ez dakit nondik datorkidan zaletasun hori; betidanik gustatu izan zait margotzea. Amak esan zidan marrazkiei detaile asko egiten nizkiela. Adibidez, 5 urterekin gerrikoaren belarria (hebilla) egiten nuen.

Pintura eskolatan egon zara ala zure kabuz ikasi duzu margotzen?

Pintura eskolatan nabil 5 urte nituenetik; bestela, nagiegia naiz eta zerbait egiteko. Pintura eskolak edukita, behartuta nago marraztera.

Nola ikasten da margotzen?

Praktikatzen eta praktikatzen ikasten da. Oso txarra izan arren, lortu egin daiteke. Eta ematen duena baino errazagoa da. Begiratzeko modua aldatu behar da. Hau da, estereotipo batzuk ditugu; adibidez, zuhaitz bat bi makila eta borobil batekin marrazten dugu, baina, beste modu batera begiratu gero, zuhaitz hori marrazteko modua aldatu egingo dugu.

Horrez gain, marraztea marrazte baino gehiago da. Proporzioak eta distantziak kontuan hartu behar dira.

Zein teknika erabiltzen duzu?

Olio, akrilikoa eta eskulan batzuk ere egiten ditut. Txikitatik horiek ikasi ditut eta olioak kalitate ona duela uste dut. Beste teknika batzuk ere probatu ditut, baina olio da gehien gustatzen zaidana.



NAROA ODRIUZOLA

PERTSONALA

Herria: Antzuola. **Adina:** 16 urte. **Ikasketak:** Batxiler Artistikoko lehenengo maila egiten dihardut Arrasaten. **Zaletasunak:** Margotzea eta parrandan irtetea. **Liburu gomendagarri bat:** Carlos Ruiz Zafonen *La sombra del viento*. **Ikusitako azken filma:** *Invic-*

tus, Clint Eastwood-ena. **Margolari bat:** William Turner. **Gustuko margolan bat:** Picassoren *Guernica*. **Museo bat:** Billboko Guggenheim. **Kolore bat:** Berdea. **Amets bat:** Orain bezain ondo jarraitzea eta zaletasuna ez galtzea.

Zerk inspiratzen zaitu?

Edozerk. Marrazten jarritz gero, edozerk inspiratzen nau. Nire kasuan, gustuko zerbait ikusten dudanean pintatzen hasten naiz. Ez badut ezer interes-garririk parean, bururatzen zaidana marrazten dut. Argazkiak eta gustuko margolanak ere pintatzen ditut.

Martxo hasieran zure lanen erakusketa egin zuen Antzuolan. Zer moduz joan zen?

Kultura teknikari Jone Larrañagak proposatutako zerbait izan zen. Nik baiezkua eman nion eta kultura etxean nire 30 margolan egon ziren ikusgai. Ondo joan zen; jendea, behintzat, pozik gelditu zen, eta, ondorioz, baita ni ere. Jende asko joan zela esan didate, baina ni ez nintzen agertu ere egin, lotsagatik. Izan ere, ez dut uste maila ona dudarik. 2003tik 2009ra arteko koadroak zeuden.

Eguneko une konkreturen batean marrazten duzu?

Ez, irteten zaidanean marrazten dut. Goizean izan daiteke, gauean, arratsaldean... Adibidez, koadroak egiten arratsaldean hasten naiz. Lehen, bi hilabetean egiten nuen bat.

Margolanak egiteaz gain, ikus-tea ere gustuko duzu?

Lehen ez nintzen askorik joaten museoetara, baina orain batxilerrean joaten hasi gara eta gustatzen hasi zait. Gainera, nork bere esanahia topatzen dio margolanari. Nahiz eta egin duenarentzat esanahi bakarra eduki, norberak beste bat topatu ahal izango dio.

Zaletasuna baino zerbait gehiago da zuretzat pintura?

Bueno, hortik noa, behintzat. Zerbait gehiago izatea nahiko nuke, baina ez dakit lortuko dudana.

Pintura alde batera utzita, kirolaria ere izan zara.

DBHko 4. mailara arte gimnastika erritmikoa egiten nuen, baina aurtan Arrasatera aldatu naitenez laga egin behar izan dut.

Ikasketei dagokienez, zer zabil-tza ikasten?

Batxiler Artistikoa egiten dihardut Arrasaten. Beste batxiler motak ez ziren nire gustukoak eta horregatik erabaki nuen hori egitea. Oso gustura nago.



GOIENKARIA

Pazko astean albistegia emango dute

Pazko astean, martitzenetik aurrera, *Berriak* saioa eskainiko digute Goiena Telebistan. Julen Iriondo kazetariak aurkeztuko ditu eguneko albisteak. Apirilaren 12an bueltatuko da *Goiena magazinea* saioa Arrixu Barrusoren eskutik.

GOITB, 'Berriak'

> Egunero, (ikus taula)



BERTSOZALE ELKARTEA

Nafarroako bertsolari txapelketa

Martxoaren 20an, Lesakako pilotalekuan, taula gainean izan genituen finalerako sailkatu ziren zortzi bertsolari nafarrak. Giro aparta eta maila bikaina erakutsi zuten bertsolariek. Saioa Goiena Telebistan ikusteko aukera duzue.

GOITB, 'Bertsolaritza'

> Eguena, 14:15

astea GOITBn

Eguaztena, 31	Eguena, 1	Egubakoitza, 2	Zapatua, 3	Domeka, 4	Astelehena, 5	Martitzena, 6
13:15 Marrazki bizidunak.	08:00 Barrebusa.	08:00 Barrebusa.	08:00 Barrebusa.	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Barrebusa.	13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Ikusmira.	09:00 Marrazki bizidunak.	09:00 Marrazki bizidunak.	09:00 Marrazki bizidunak.	10:30 Barrebusa.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Ur eta lur.
14:15 Eltze beroa.	11:30 28 Klip.	11:30 Bergarako lau	11:30 28 klip.	11:30 Bergarako lau	11:30 Erloklip.	14:15 On Ein.
14:45 Berriak.	12:00 Itsasoari begira.	t'erdiko pilota txapelketa.	12:00 Erloklip.	t'erdiko pilota txapelketa	12:00 Ur eta lur.	14:45 Berriak.
15:10 Ilunpean.	12:30 Erreportajea	13:30 Barrebusa.	12:30 Ikusten	13:30 Marrazki bizidunak.	12:30 Ikusten	15:10 Eltze beroa.
15:50 Kiroleroak.	13:00 Ur eta lur.	14:30 Goiena Magazinea.	13:00 Ur eta lur.	15:30 Marrazki bizidunak.	13:00 Eltze beria.	15:50 Ikusten.
16:20 28 Klip.	13:30 On ein.	15:15 Gipuzkoa Kultura.	13:30 On ein.	18:00 Erreportajea	13:30 On ein.	16:20 Itsasoari begira.
16:45 Berriak.	14:15 Nafarroako bertso txapelketa.	15:45 Marrazki bizidunak.	14:15 Goiena Magazinea.	18:30 Gipuzkoa Kultura.	14:15 Eltze beroa	16:45 Berriak.
17:15 Marrazki bizidunak.	15:15 Gipuzkoa Kultura.	18:15 Ur eta lur.	15:15 Bagara.	19:00 Kalekanto.	15:15 Neo tb.	17:10 Marrazki bizidunak.
17:35 Harmailatik.	15:45 Marrazki bizidunak.	18:45 Euskaldunak	17:15 Marrazki bizidunak.	19:30 Nafarroako bertso txapelketa.	15:45 Marrazki bizidunak.	17:35 Kurtulzulo.
18:15 Ur eta lur.	18:15 Barrebusa.	19:15 Ikusten.	18:15 Barrebusa.	20:30 Kulturzulo.	18:15 Barrebusa.	18:15 Gipuzkoakultura.
18:45 Berriak.	19:15 Ikusten.	19:45 Ilunpean.	19:15 Ineo tb.	21:00 Ilunpean.	19:15 Itsasoari begira.	18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.	19:45 Euskaldunak	20:15 Kiroleroak.	19:45 28 klip.	21:00 Ilunpean.	19:45 Ur eta lur.	19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.	hizketan.	21:00 Nafarroako bertso txapelketa.	20:15 Kiroleroak.	21:45 Bagara.	20:15 Euskaldunak	19:45 Berriak.
20:45 Ilunpean.	20:15 Kiroleroak.	22:00 Itsasoari begira.	21:00 Kiroleroak.	23:45 Euskaldunak	hizketan.	20:15 Ur eta lur.
21:15 Goiena Magazinea.	21:00 Goiena Magazinea.	22:30 Euskaldunak	21:00 Goiena Magazinea.	hizketan.	21:00 28 klip.	20:45 Ikuisten
22:15 Hitzaldia: Markel Olano.	22:15 Gipuzkoa kultura.	hizketan.	22:00 Bergarako lau	00:15 28 klip.	22:00 Gipuzkoa kultura.	21:15 Berriak.
23:00 Kalekanto.	22:45 Kulturzulo.	23:00 Ilunpean.	t'erdiko pilota txapelketa.	00:45 Erloklip.	22:30 Erreportajea	21:45 Erreportajea.
23:45 Goiena Magazinea.	23:20 Itsasoari begira.	23:30 Erloklip.	00:00 Emisio amaiera.	01:30 Emisio amaiera.	23:00 Ilunpean.	22:15 Ilunpean.
00:45 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.	00:00 Emisio amaiera.	00:00 Emisio amaiera.	00:00 Emisio amaiera.	23:30 Erloklip.	23:00 28 Klip.
					00:00 Emisio amaiera.	23:30 Berriak.
						00:00 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

Arrasate Irratiak oporrak hartuko ditu Pazko aste osterarte. Bestela esanda, apirilaren 12an bueltatuko da ohiko irratsaioarekin. Bien bitartean, musika izango da jaun eta jabe 107.7ko sintonian; gure irratiak ohi duen moduan, baina, lehenastun izango du euskal musikak.

Apirilaren 12tik aurrera

10:00-12:00 Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldia iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kiroalak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepeaso (GOIENKARIArekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irrati bloga))
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Musika
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 22:00: Errepikapenak

guardiako farmaziak

ARRASATE

Eguaztena, 31	Fernandez	Maisu Aranberri	943 79 22 26
Eguena, 1	Español	Araba Etorbidea, 14	943 79 18 65
Egubakoitza, 2	Etxeberria	Zarrugalde, 42	943 77 16 30
Zapatua, 3	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Domeka, 4	Fernandez	Maisu Aranberri	943 79 22 26
Astelehena, 5	Español	Araba Etorbidea, 14	943 79 18 65
Martitzena, 6	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15

BERGARA

Eguaztena, 31	Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguena, 1	Urritikoetxea	Oxirondo Plaza, 4	943 76 11 74
Egubakoitza, 2	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Zapatua, 3	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 4	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehena, 5	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Martitzena, 6	Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15

ONATI

Eguaztena, 31	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 1	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 2	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Zapatua, 3	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 4	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 5	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 6	Anduaga	San Lorenzo, 3	943 78 21 16

ARETXABALETA-ESKORIATZA

Eguaztena, 31	Agirre	Gorosarri Plaza(Esko.)	943 71 48 28
Eguena, 1	Juan Fraile	Herriko Plaza	943 79 21 99
Egubakoitza, 2	Juan Fraile	Herriko Plaza	943 79 21 99
Zapatua, 3	Juan Fraile	Herriko Plaza	943 79 21 99
Domeka, 4	Juan Fraile	Herriko Plaza	943 79 21 99
Astelehena, 5	Anitua	Belorrieta Auzoa	943 08 11 43
Martitzena, 6	Anitua	Belorrieta Auzoa	943 08 11 43

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2010eko egutegia.
Bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,39 € + WAP deskarga kostua, operadorearen arabera, Altria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

herritarrak galdezka

GOIENKARIA ASTE SANTUAN

Irakurle batek mezu bat bidali digu posta bidez honako galdetzen: "Aste Santua dela eta, bi aste hauetan zein egunetan jasoko dugu GOIENKARIA?".

Aste Santua dela eta, oporrak daude eta GOIENKARIA-ko langileok ere oporretara goaz. Aste honetako GOIENKARIA eguaztenean, martxoak 31, banatuko da. Ondorengo apirilaren 16an argitaratuko da. *Asteleheneko Goienkaria*-ri dagokionez, apirilaren 12an zuen postontzietan izango da.

ETORKINENTZAKO EUSKARA IKASTAROK

Aretxabaletako irakurle batek deitu digu honako esaten: "Etorkinentzat euskara ikastaroak daudela jakin dut; horren inguruko informazio gehiago nahiko nuke".


Aretxabaletako Udalak berriz ere martxan jarri du AISA ikastaroa. Euskarara hurbildu nahi duten etorkinentzako harrera ikastaroa da. Herrian bizi diren eta euskarekin harremanik izan ez duten 16 urtetik gorako etorkinei zuzendua dago. Udaleko Euskara Zerbitzuan edo 943 71 18 62 telefonora deituta eman daiteke izena, betiere martxoaren 31 baino lehen.

Egiguzu galdera eta geuk egingo diogu dagiokionari.

- Telefonoz: 943 25 05 05 • Faxez: 943 25 05 12
- Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com


eguraldia

DEBAGOIENEAN



Eguena, 1

Zerua hodeitsu dugula esnatuko gara eguenean, baina egunak aurrera egin ahala garbitzen joango da. Tenperaturaren aldaketarik ez da izango.



Egubakoitza, 2

Hodei gutxi batzuekin esnatuko gara egubakoitzean, baina egunak aurrera egin ahala hodeiak ugartzen joango dira. Eurria egin dezake.

EUSKAL HERRIAN

Egun hodeitsu izango da eguena. Hala ere, ez da prezipitaziorik izango. Egubakoitzean zertxobait okerre egingo du: hodeiak izango dira nagusi eta eurria egin dezake.



ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritza batera:

Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.
Zerbitzu orokorrak: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

Antzuola:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 120 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **160** euro.

Goiena klubeko bazkideek: 110 euro

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

Goienkaria: astero, 41.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.



Ibarrako **Arianne Orus** eta Arrasateko **Alejo Plaza** apirilaren 10ean ezkonduko dira Ibarrako Izaskungo ermitan. Bazkaria Donostiako Kurasaalean egingo dute eta eztei-bidaian Thailandiara joango dira. Koadrilakoen partetik, zorionak eta ondo-ondo ibili!

hildakoak

- **Nagore Aranburu Suarez.** Oñatin, martxoaren 25ean. 24 urte.
- **Mari Karmen Badiola Aranguren.** Antzuolan, martxoaren 27an. 61 urte.
- **Etelmira Estrella Fernandez.** Arrasaten, martxoaren 27an. 72 urte.
- **Anbroso Lizarralde Untzueta.** Antzuolan, martxoaren 28an. 85 urte.
- **Encarnacion Sanz Irisarri.** Arrasaten, martxoaren 29an. 70 urte.

URTEURRENA

Paco Molina Higuera

Lehen urteurreneko meza
apirilaren 11n, domeka, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina
parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:


Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Martxoak 31-Apirilak 12

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Ikuskizuna



BERGARA

> Eriz magoak ikuskizuna egingo du familia osoarendako

Pazko asteko oporrak alaitzeko, Eriz magoaren bisita izango dute ume eta helduek apirilaren 9an, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 17:00etan. Sarrera 3 euro da. Fantasiar eta umorez betetako trikimailuekin harridura piztuko du.

Erakusketa



ARRASATE

> 'África, casa de palabras' erakusketa irekiko dute apirilaren 7an, eguaztena

África, casa de palabras erakusketa bisitatu ahal izango da Kulturaren apirilaren 7tik 25era. Afrikaren hainbat alderdi islatzen ditu erakusketak, horretarako haur literaturako liburuak -testuak eta ilustrazioak- erabilia.

Ikus-entzunezkoa



ARETXABAETA

> 'Un grito desde el Sahara' dokumentala emango dute Arkupen apirilaren 12an

Herri Sahararraren Giza Eskubideen Aldeko Astea hasteko, apirilaren 12an, astelehena, *Un grito desde el Sahara* filma eskainiko dute Arkupeko Zariaia aretoan (19:00). Mundubat GKEk egindako ordubete eskaseko dokumentala da.

martxoan; dantza flamenkoarena, apirilaren 13tik 19ra, martitzenetan; eta argazkigintzarena, apirilaren 14tik 19ra, eguaztenetan, 18:00-20:00. Matrikula da 20 euro, 12 ikasle edo langabeendako.

Izenematea zabalik dago Gazte bulegoan (943 25 20 62) edo gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net helbidean.

Ospakizunak

ANTZUOLA

> Aiherrera joateko autobuserako izena eman daiteke

Aiherraren eta Antzuolaren senidetzearen 25. urteurreneko ospakizuna egingo dute Aiherran apirilaren 18an. Besteak beste, herrien arteko herri kirolak, umeen antzerkia, senidetzea irudikatzen erakundearen arteko ekintza sinbolikoa, bazkaria eta kantu eta dantza saioa izango dira. Bada, autobusa antolatu du Udalak, doan, eta izena emateko aukera dago udaletxean: 943 76 62 46 telefonoan edo kultura@antzuola.net helbide elektronikoa.

Apirilaren 18an izango da, Aiherran.

Bestelakoak

ARRASATE

> Pazko asterako ekintzak ume eta gaztetxoendako

Pazko asterako, hainbat ekintza antolatu dituzte Gaztetxokoek herriko 12-17

Antzerkia

ARRASATE

> Umorezko bakarriketa entzuteko aukera lamain

Iamai kafetegiak 10 urte betetzen dituela eta, astero emanaldi bat dago hantxe. Apirilaren 9rako, Sebas *El Rayo* aktorearen umorezko bakarriketa antolatu dute.

Apirilaren 9an, Kontzezino kaleko Iamai kafetegian, gauerdian.

Erakusketak

GASTEIZ

> Juan Jose Altuna Akizu margolariaren lanak ikusgai

Juan Jose Altuna Akizu margolari arrasatearrak erakusketa dauka Ikusiarte aretoan, eta zabalik egongo da apirilaren 15era arte, honako ordutegian: martitzenetik egubakoitzera, 18:30-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:30-21:00; astelehen eta jaiegunetan itxita egongo da.

Ikusiarte aretoan (Correria 8).

ESKORITATZA

> Aire zabaleko margo lehiaketako lanak ikusgai

Aire zabaleko margo lehiaketaren 4. edizioa jokatu zen joan den domekan Eskoriatzako kaleetan. Orain, aurkeztutako margolanen erakusketa dago, apirilaren 16ra arte.

Ibarraundin dago erakusketa.

ARETXABAETA

> Gipuzkoako txakurren gaineko argazki erakusketa

Manuel Montielek Gipuzkoako herri guztietako txakurren argazkiak ipini ditu ikusgai.

Arkupen, egunero 11:00-13:00 eta 18:00-20:00; zapatuetan, 11:00-13:00; domeka eta jaiegunetan, itxita.

BERGARA

> Gerrako hilobien gaineko erakusketa dago Aroztegin

Hildakoak hilobietatik ateraz, duintasunak berreskuratuz delako erakusketa ipini du Aranzadi Elkartek, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Aranzadiko ikertzaile eta boluntarioek joandako 10 urteetan egindako hobitiek ateratze lanak ikus daitezke, argazkitan.

Erakusketa apirilaren 18ra arte dago zabalik, baina itxita izango da apirilaren 11n, domeka. Gainera, ordutegi

berezia izango du apirilaren 1ean eta 2an: 10:30-14:00 eta 16:00-19:00.

Aroztegi aretoan, honako ordutegian: astegunetan, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; jaiegunetan, 12:00-14:00.

Ikastaroak

ELGETA

> Yoga begirale izateko ikastaroa emango dute

Yoga begirale izateko ikastaroa emango dute zortzi hilabetetan, hilean bi zapatu-

tan. Hezkuntza fisikoko profesionalei, yoga egiten dutenei eta, oro har, interesa duen edozeini dago zuzenduta. Diploma ere emango dute.

Izenematea: 675 80 18 95 (Fernando).

ARRASATE

> Gazteendako lau ikastaro gertatu ditu Udalak

Txalaparta, dantza flamenkoa, zeramika eta argazkigintza ikasteko aukera dago Gazte bulegoaren eskutik. Txalaparta ikastaroa astelehenetan (18:00-20:00) eta zapatuetan (11:00-13:00) izango da; zeramikarena,

PROPOSAMENA



ARRASATE

> Elkarten arteko 30. doke txapelketa jokatu dute etzi, egubakoitza

Ohitura den moduan, elkarten arteko 30. doke txapelketa jokatu dute apirilaren 2an, egubakoitza. Monterron parke alboko zelaian batuko dira antzinatik datorren joko horretan trebezia neurtzeko. Lehiaketa horretan irabazten duen bikoteak jokatu du gero Udaleko ordezkariak osatutako bikotearen kontra, eta galtzen duenak ordaindu beharko ditu ikusle eta lehiakideendako sardinak eta ardoa.

Apirilaren 2an, egubakoitza, Monterron parke ondoko zelaian, 10:00etan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

GAIA erakusketa iraunkor berria

Energia eta Natura dira erakusketa honetako ardatz nagusiak.

Bisita gidatuak asteburutan:
13:15 eusk. eta 17:45 gazt.



PLANETARIUM DIGITALA

Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta.

Asteburu eta jai-egunetako saioak:
12:00-13:00-15:30-17:00-18:00.

Eboluzioa: Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu

Biziaren jatorria: Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa

Itsua izar begiekin: Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat

Kartoizko suziaren sekretua: Haurrei zuzendutako saioa. Eguzki sistemako planetak

Donostiatik zerura begira: Zuzeneko saioa, gaur ikus dezakegun zerua ezagutzeko

Infinity Express: Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaia

Kaluoka'hina, uharrri sorgindua: Haurrei zuzendutako saioa. Arrain koloretsuen abenturak.

ERRUSIAR MENDIA SIMULAGAILUA

Asteburu eta jai egunetan irekita
11:30-14:30 eta 15:30-19:00



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramón.org

Aste Santuko ordutegia
Aste Santuan egunero irekita,
11:00etatik 19:00tara

urte arteko gaztetxoendako. Izenematea martxoaren 27an bukatzen da. Honakoak dira ekintzak: bolei txapelketa eta bazkaria (apirilak 7), rockopolisera irteera eskalada egiteko (apirilak 8), bizikleta irteera Urkulura (apirilak 9) eta rafting egitera irteera (apirilak 10).

Ludoteketan ere ekintza bereziak izango dituzte. Hala, pizza eta pastela egingo dituzte (apirilaren 7an, Usaetxen; 8an, Okendon; eta 9an, Santa Marinaran); jokoak izango dituzte (apirilaren 7an, Okendon; 8an, Santa Marinaran; eta 9an, Usaetxen); eta musua margotuko dute, ile-apaindegia izango dute eta giltzatakoko egingo dituzte (apirilaren 7an, Santa Marinaran; 8an, Usaetxen; eta 9an, Okendon).

Argibide gehiago, Txatxilipurdin (943 79 54 46).

ARETXABALETA

> Afari-merienda, txapelketak eta Elantxobera irteera

Aretxabaleto gaztelekuan, honako ekintzak antolatu dituzte: eskulanak (apirilak 6); afari-merienda (apirilak 7); ping-pong eta futbol txapelketak (apirilak 8); eta Elantxoben egonaldia, 12-14 urte artekoendako (apirilak 9-11).

Argibideak, Txatxilipurdin (943 79 54 46).

ESKORIATZA

> Hainbat ekintza egingo dituzte apiril hasieran gaztelekuan

Honako ekintzak antolatu dituzte: bizikleta irteera (apirilak 7), rokopolisera irteera (apirilak 8) eta Oriora hiru egunerako irteera (apirilaren 9tik 11ra; 55 euro da).

Apirilaren 6an zabalik izango da gaztelekua.

BERGARA

> Umeendako jolasak izango dira Pazko astean

Umeendako askotariko jolasak antolatu ditu Udalak Pazko egunetarako.

Apirilaren 7an eta 8an, eguaztena eta eguena, Seminarioko patioan, 17:00etatik 19:00etara.

ARRASATE, ESKORIATZA

> Batzar informatiboak egingo dituzte Arizmendi ikastolan

Batxilergora begira, batzar informatiboak deitu ditu Arizmendi ikastolak: apirilaren 13an, Gaztelupen izango da, eta apirilaren 15ean, Almenen. Batzarrak 18:00etan hasiko dira.

ELGETA

> Oinarrizko sukaldaritza eta argazkilaritza digitala, ikasgai

Oinarrizko sukaldaritza ikastaroa emango dute apirilaren 20, 21, 27 eta 28an, 18:00-21:00. Denondako da baina, batez ere, gazteendako. Argazkilaritza digital eskolak ere antolatu dituzte. Apirilaren 21etik maiatzaren 13ra izango dira, martitzen eta eguenetan, 17:00-19:00. Udalak eta Bizikasik antolatu dituzte bi ikastarook.

Izenematea udaltxean edo Bizikasin (943 76 93 94 edo info@bizikasi.com).

Zinema

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Invictus
Apirilak 10: 19:30, 22:00.
Apirilak 11: 19:30.

Cazadores de dragones
Apirilak 11: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Still walking
Apirilak 8: 19:30.

Precious
Apirilak 9 eta 10: 22:00.
Apirilak 11: 19:30.
Apirilak 12: 16:00.

Tiana y el sapo
Apirilak 11: 17:00.

BERGARA

ZABALOTEGI

The visitor
Apirilak 8: 20:00.

Lepel (euskaraz)
Apirilak 10 eta 11: 17:00.

La sombra del cazador
Apirilak 10: 19:30, 22:30.
Apirilak 11: 19:30.

GAZTETXEA

Diario de un rebelde
Apirilak 4: 18:00.

Camino a la gloria
Apirilak 11: 18:00.

ELGETA

ESPALOIA

Mapa de los sonidos de Tokio
Apirilak 7: 21:30.

ARAMAIO

KULTUR ETXEA

Mi nombre es Harvey Milk
Egubakoitza: 22:15.

Gordos
Apirilak 9: 22:15.

GASTEIZ

GURIDI

El libro de Eli
17:30, 22:30.

Querido John
17:30, 20:00, 22:30.

Furia de titanes
17:30, 20:00, 22:30.

Cómo entrenar a tu dragón
17:00, 18:50.

Recuérdame
17:30, 20:00, 22:30.

Hermanos
19:45.

Pájaros de papel
17:00, 19:45, 22:30.

En tierra hostil
17:00, 22:15.

Millennium 3
19:45.

El mal ajeno
20:35, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Soul kitchen
18:00, 20:15, 22:30.

Lourdes
17:30, 20:00, 22:30.

Ajami
17:30, 20:00, 22:30.

Las viudas de los jueves
17:30, 20:00, 22:30.

Luciérnagas en el jardín
18:00, 20:15, 22:30.

El escritor
17:30, 20:00, 22:30.

El concierto
18:00, 20:15, 22:30.

Martxoaren 31tik apirilaren 8rarte.

YELMO CINEPLEX

Avatar
16:05 (apirilaren 1etik 5era).

Cómo entrenar a tu dragón (3D emanaldiak)
16:00 (apirilaren 1etik 5era), 18:00.

Cómo entrenar a tu dragón
17:00 (apirilaren 1etik 5era), 19:00.

Acantilado rojo
19:10, 21:50, 00:25.

El libro de Eli
15:40 (apirilaren 1etik 5era), 17:50, 20:05, 22:20, 00:35.

Tensión sexual no resuelta
16:10 (apirilaren 1etik 5era), 18:10, 20:10.

Tiana y el sapo
16:35 (apirilaren 1etik 5era), 18:35.

Millennium 3
19:45, 22:30.

Furia de titanes (3D emanaldiak)
20:00, 22:20, 00:40.

Furia de titanes
16:40 (apirilaren 1etik 5era), 19:00, 21:20, 23:40.

Percy Jackson y el ladrón del rayo
15:40 (apirilaren 1etik 5era), 17:55.

Shutter Island
21:40, 00:20.

Precious
15:45 (apirilaren 1etik 5era), 17:45.

La niñera mágica y el Big Bang
15:45 (apirilaren 1etik 5era), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

Celda 211
22:10, 00:15.

El mal ajeno
20:35, 22:35, 00:35.

En tierra hostil
17:35, 19:55, 22:15, 00:35.

El escritor
17:30, 20:00, 22:30, 00:50.

Arthur y la venganza de Maltazard
15:35 (apirilaren 1etik 5era).

Green zone
20:10, 22:25, 00:40.

Recuérdame

15:30 (apirilaren 1etik 5era), 17:45, 20:00, 22:15, 00:30.

Martxoaren 31tik apirilaren 8ra. Gauerdiko emanaldiak, martxoaren 31n eta apirilaren 1ean, 2an, 3an eta 4an.

ÁBACO BOULEVARD

Luciérnagas en el jardín
15:45, 18:05, 20:25, 22:45, 01:00.

Tensión sexual no resuelta
16:10, 18:10, 20:15, 22:15.

Hermanos
22:35.

El libro de Eli
15:45, 18:05, 20:25, 22:45, 01:00.

Los niños de Timpelbach
16:15.

Acantilado rojo
19:15, 22:15.

Tiana y el sapo
16:30.

Green zone
20:20, 22:40, 01:00.

Cómo entrenar a tu dragón
16:05, 16:30, 18:20, 18:30, 20:30.

Recuérdame
15:50, 18:10, 20:30, 22:45, 01:00.

El escritor
17:00, 19:30, 22:10, 00:45.

La niñera mágica y el Big Bang
15:50, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Furia de titanes
16:00, 18:10, 20:20, 22:35, 00:45.

Shutter Island
19:00, 22:00, 00:45.

Martxoaren 31tik apirilaren 8ra.



EL ESCRITOR ***

Idazle baten estualdiak

> Zuzendaria: Roman Polanski.

> Aktoreak: Ewan McGregor, Pierce

Brosnan, Olivia Williams, Tom Wilkinson.

> Alemania-Frantzia-Erresuma Batua, 2010.

> 128 min.

Asko hitz egin da azken bolada honetan Roman Polanskiri buruz. Informazioak zuzendariaren bizitza pertsonalarekin lotuta zeuden, duela urte asko pasatuta gertakizun labain batekin, hain zuzen ere. Justiziarekin izandako arazoek *El Escritor* filmaren muntaiaaren prozesua zaildu egin dute, baina azkenean zinemataratu heldu da.

El Escritor-en pertsonaia bat Tony Blair politikarian inspiratuta dagoela esan da. Eta hori egia izanda, pentsa dezakegu filma egungo politika munduari buruzko begirada errealista bat dela, baina hori baino gehiago, suspentsezko *thriller*-a da. Bai, hitz egiten du lastozko estatu-politkariei buruz, politikan dauden azpajokoak ere agertzen dira, baina Polanskik elementu horietan sakondu baino gehiago, beste film batzuetan egin zuen moduan (*La semilla*

del diablo, *Chinatown*) pertsonaia bat hartzen du; kasu hone tan idazlea, trama korapilatsu eta maltzur baten sartuta. Haren bakardadea, nahastea eta estualdiak ezagutuko ditugu. Ikusleak Ewan McGregorrekin egiten duen pertsonaiaren ikuspuntua izango du, harekin batera datuak ezagutzen eta lotzen joango da, eta horrela pertsonaiaren egoerarekin eta hark sentitzen duenarekin identifikatuko da.

Polanskik ondo graduatzen ditu istorioaren erritmoa eta gertatzen diren biraketak eta informazio berriak. Ikusleak, pertsonaiak bezala, itxuraren azpitik zer dagoen ezagutu nahi du, eta hori poliki-poliki azalduko da. Eta prozesu hori, ondo egonda ere, ez da originala. Bukaerarako uzten ditu Polanskik bere ukituaren pintzelkada distiratsuenak: autoen jazarpena edo kanpo gertatzen den bukarako eszena ederra. Momentu horiek lortzen dute *El Escritor* *thriller* sendo izatetik *thriller* distiratsu izatera pasatzea.

Antonio Zabala

Eskasa:* Balekoa:** Ona:*** Oso ona:**** Bikaina:*****

bono fotoa



Eskualdeko ze herritako XV. mendeko parroikiko arkupeak dira argazkikoak?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkoro berezibar

ZORIONAK AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEARI:

Arrasateko Amaia Iturbe.

Erantzun zuzena: Aretxabaletan, Ugastegi.



ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak
943 76 98 51

GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO BOTILA ARDO PACKA*
ZOTZ ASMATZAILEON ARTEAN!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.
Larchago beltz berezia: botila bat. Larchago krintza: botila bat.

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK.....
HERRIA TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Agur, Aloña Berriko pintxoei

ERRETIROA Jose Ramon Elizondo oñatiarra eta haren emaztea erretiratu egingo dira gaur bertan

GOI MAILAKO PINTXOAK 25 urte hauetan makina bat sari irabazi dituzte Euskal Herrian eta kanpoan ere bai

ONDORENGORIK EZ Donostiako tabernarekin jarraituko lukeen norbait aurkitzea gustatuko litzaieke

T.M./ARRITXU BARRUSO > DONOSTIA
Aloña Berri taberna Donostiako taberna entzutetsuenetakoa da, eta horren *errudunak* dira hango pintxo goxo eta berritzaileak; makina bat sari irabazi dituzte Euskal Herrian eta baita kanpoan ere. Bada, gaur bertan ateak itxiko ditu Aloña Berrik, eta, beraz, agur esan beharko zaie bertako pintxo zoragarriei.

ONĀTITIK DONOSTIARA

Jose Ramon Elizondo oñatiarra da, baina 9 urterekin joan zen Donostiara. Gurasoek Aloña izeneko jatetxea izan zuten urte askoan Gros auzoan, baina hura itxi zenean Joserrak bere emazte Kontxi Bereziartuarekin Aloña Berri taberna ireki zuen. 25 urte daramatzate bertan lanean, eta, pena handiarekin bada ere, erretiroa hartzeko garaia iritsi zaiela uste dute: "Pena handiarekin itxiko dugu taberna; urte asko daramatzagu hemen, lagun handiak egin ditugu eta gogor lan egin behar izan dugun arren, momentu on asko eman dizkigu

Aloña Berrik", azaldu zigun Jose-rak tabernako barraren beste aldetik.

GOI MAILAKO MINIATURAK

Plazera da Aloña Berriko barrari errebasoa egitea. Kolore, zapore eta tamaina guztietako pintxoak aurkitu ditugu: txipiroia orekan, tartaletak, txirristra, Uliako gutziak... Letxerita izenekoek ere sekulako arrakasta daukate, Jose-raren gurasoen Aloña jatetxetik ekarritakoak. Guztiak Joserraren emazte Kontxiren artelanak dira, Kontxik berak dioenez bera da eta sukaldeko *jefa*: "Pintxoak txikiak dira, baina plater handi batek baino lan handiagoa ematen dute. Zaporeak ondo konbinatu behar dira", dio txirristra bat prestatzen digun bitartean.

Bikotearen asmoa zen, negozioa utzi arren, tabernarekin jarraituko zuen norbait topatzea eta negozioarekin jarraitzen laguntzea. Oraingoz, ez dute lortu. Pertsiana jaitziko dute gaur; ea laster, berriro ere, txipiroia orekan jateko aukera daukagun.



ERRETIROA Jose Ramon Elizondo oñatiarra eta haren emaztea, Aloña Berri jatetxean.

TXOMIN MADINA

ahobero

"Sar dezala bere petrolioa kabitzen zaion tokian"

Antonio Basagoiti

> Euskadiko PPko presidentea

Euskadiko popularren presidenteak esan du Venezuela ETArekin santutegi berria dela. Dena dela, Chavezek ohituta gauzkanarekin, Basagoitiren adierazpenak txikieria dira. Venezuelako presidenteak Basagoitiren hitzak entzun baditu, berehala etorriko da erantzuna eta espektakulua bere *Alo presidente* telebista saioan.

iturri onetik

Oñatin espeleologia topaketak egingo dituzte apirilaren 23an, 24an eta 25ean

Aloñamendi Espeleologia Taldeak antolatuta, Euskal Herriko espeleologia topaketak egingo dituzte Oñatin apirilaren 23an, 24an eta 25ean. Hitzaldi eta ikastaroez gain, irteerak ere egingo dituzte mendira eta kobazuloetara. Aurreikusten dute 80 bat aditu batzea egun horietan Oñatin. Jakinarazi dute, bestetik, omenaldia egingo diotela Udaltxen hildako Arrasateko Joseba Iglesias gazteari.

piperrautsa


Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

10 urte

Ekainean izango dira hamar urte Goiena kooperatiaren eskritura egin genuela, dozenatik gorako talde garrantza mikrobusean sartu eta Bilbora joanda. Eskritura euskaraz egin nahiak behartu zuen bidaia, gaur gezurra badirudi ere.

Ekainean izango da urteurren zehatza, baina dagoneko hasi dira prestaketak eta joan den astean grabatu zizkidaten oroitzapenak bideorako. Eta oroitzean samurtu egin nintzen beste behin ere. Egia da denborak gozatu egiten duela iragana, baina kasu honetan hori baino gehiago da. Giza talde goi mailakoa bildu zen une jakin hartan eta inspirazioa erruz agertu zitzaion, egitasmoaren sendotasunak erakusten duen bezala. Haratago, abentura hura arrakastaz burutzeko erabili genuen inteligentzia, hori dut nik gogokoen.

ai, ene!



Autoak gustatuz gero, horra hor auto-oheta

Autozale amorratuendako ohe aproposa da. Urrutiko kontrola ere badauka, logelan zehar aurrera eta atzera ibiltzeko.

www.nopuedocreer.com

Ukabi
informatika

Enpresa kudeaketa aplikazioak

Era guztietako webguneen diseinua

Etixerako eta enpresetarako salmenta

Domingo Irala z/g
(Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01



Eskaintza eksklusiboa

Prezio hauekin, edonork izan dezake eskuko ordenagailua!

499€

HP COMPAQ 610 eramangarria

- Teknologia: Core 2 Duo 2 GHz
- T5870 64 l
- RAM: 4 GB
- Pantaila: 15,6"
- 320 GB SATA disko gogorra
- Modeloa: GMA X3100
- Integratutako webcama: Bai
- Bateria ireaupena: 5 ordu
- Sistema eragilea: Windows 7 Premium
- Pisua: 2,490 kilo
- DVD±RW DL
- Bluetootha: Bai

... eta ehunka produktu eta eskaintza aurkituko dituzu gurean.